

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



**KULTURA: JOXE MARI ANDUAGA GITARRA JOTZAILE OÑATIARRAK
BAKARKAKO LEHEN DISKOA AURKEZTUKO DU APIRILEAN /15**

Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko martxoaren 21a • IV. urtea • 103. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Kaleko euskararako bidea, 'Berbeta berua' liburuaren eskutik

ESKORIATZA

Eusko Ikaskuntzak eta Udalak hitzarmena sinatu berri dute /10

JOSE MIGUEL TOLEDO

"Denok nahi dugu lana, etxea eta aisialdia ahalik eta gertuen izatea" /8-9

ASTEKO GAIA: TRESNEN BILKETA ZERBITZUA /3

Altzariak non eta noiz bota ikasi beharra

Asteon izan dute bergararrek eta gatzagarrek, hilean bi aldiz gertatzen denez, etxeko tresna handi eta zaharrak botatzeko aukera. Mankomunitateak eskaintzen du altzarien, etxetresna elektriko... bilketa zerbitzua.

Hala ere, askok oraindik ez dute zerbitzua ondo erabiltzen; izan ere, tresnok bilguneetan uzteko arau batzuk daude. Mankomunitateak arauok gogorazi nahi dizkiete debagoiendar guztiei.



XABI URZELAI

Arbolak landatzeko sasoian

Otsailean goiztiarrenak eta martxoan beste herri batzuetan Zuhaitz Egunak ospatu dituzte herriz herri. Oraingo astean bertan, martitzenean, Arrasaten ospatu dute eta domekan Elgetan egingo dute; goizeko 9etan plazatik irten eta Egoarbitzan, Udalak dituen lursailetan, 25 arbola landatuko dituzte, lizarrak eta astigarrak. Arrasaten, bestalde, 200 pago landatu zituzten, Garagartzan, argazkian ikusten denez. Eskoletako neska-mutikoak eta erretiratuak ibili ziren zeregin horretan.

Gutunak-eta zelan idatzi jakiteko bilduma, kalean

Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak... idatzi bilduma aurkeztu dute oraingo astean Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek. Eguneroko egoretan idatziak egiteko argibideak ematen dira bilduma horretan. Guztira 10.600 ale banatuko dituz-

te Debagoienean. Era askotako idatzi ereduak batu dituzte, idatzi mota bakoitzaren adibide eta guzti. Interesa duen edonork eskuratu ahal izango du bilduma hori: herri batzuetan etxez etxe banatuko dituzte eta beste batzuetan euskara elkarteetan bitartez. /4

EGURALDIA

Udaberri gozo eta epela izango dugu gaurtik aurrera

Negu tipiko bati agur esango diogu eta dagoeneko gozaten hasia garen urtaro berriari, udaberriari, ongiatorria egingo diogu gaur, martxoak 21. Pello Zabala adituaren esanetan, udaberri epela izango dugu: hasieran sikua, eguraldi onarekin; gero, Aste Santuan, okerrera egingo du, baina amaieran ederra izango dugu. /5

**OÑATZ dantza taldearen aldeko
Giokela festa.**

OÑATI
2003 - 03 - 22
Arratsaldeko 19:00

Antolatzaileak,

JESUS ODRIOZOLA

GIKELA
GURE KALITATEA

Zer jan, hura izan!

Erdiko kale 32
ARRASATE
943 79 16 12

**GIZONAK
EMAKUMEAK**

UKO
JANTZIAK

Ibai-arteren
bazkide

ibai-arte



publidenak.



Zerbitzuaren kalitatea



Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.



Edozein kopuru. Epe laburrak.
Aurrekontuak konpromiso barik.
Erakusketa zabala.



- Enpresetara bisitak
- Enpresa-opariak
- Promozioak
- Publizitate-artikuluak
- Gabonetarako otarrak
- Artikulu pertsonalizatuak
- Diseinua. Arte grafikoak.
- Fotokopiak zuri-beltzean eta koloretan.
- Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.

- Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
- Trofeoak. Txapela bordatuak.
- Era guztietako errotuluak.
- Seinaleak, plaka ofizialak.
- Pankartak eta banderak.
- Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak



HELBIDE BERRIA:
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE

TEL.: 943 77 06 09 (4 linea) FAXA: 943 71 23 77
www.publidenak.com
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

Etxeko tresna zahar guztiak noiz bota

- Bilketa-egun eta orduak gogoan hartu behar dira
- Altzariak, etxetresnak, eta abar bota ditzakegu
- Zer edo zer botaz gero, telefonoz abisatu behar da

LEIRE KORTABARRIA

Aste honetan bertan izan berri dute bergararrek etxeko traste handiak botatzeko aukera; joan den martitzenean, hain zuzen. Eta eguenean gatzagarren txanda izan zen. Erabiltzen ez ditugun eta traba besterik egiten ez diguten tamaina handiko tresna horiek Mankomunitateak eta, Oñatiren kasuan, Udalak jasotzen ditu, hilean bi egunean. Ixia denatarik botatzeko aukera dugu: etxetresna elektrikoetatik hasi eta koltxoietara arte.

Hala ere, debagoiendar askok oraindik ez dute oso argi zerbitzu hori zelan erabili. Hori dela eta, Mankomunitateak hainbat argibide eman ditu.

EGUN ETA ORDU JAKINAK

Arazo nagusia zera da, Mankomunitateko Ingurumen Saileko arduradun Mikel Jaioren esanetan: "Jendeak bilketa egun edo orduetatik kanpo uzten ditu tresnak kalean". Debagoieneko herri bakoitzean bilketa-egun batzuk daude, bi hilean behin, eta ordua, guztietan, 20:00etatik 22:00etara da. "Tresnok lehenago botaz gero, egun osoan geratzen dira kalean; eta geroago

botaz gero, hurrengo bilketa-egunera arte ez ditugu jasotzen. Batzuetan bilketa bereziak egitera ere behartu izan du egoerak", dio Jaiok.

Ordu eta egunak errespetatzea ez da nahiko; biltzaileek -Fomento enpresak, Mankomunitate eta udalekin lankidetzan- jakin egin behar dute hondakin horiek batu behar dituztela, eta leku jakin batzuetatik pasatu behar direla.

Arau orokorra da tresnok zabor-erakundearen ondoan edo Z/B gunean utzi behar direla. Hala ere, Arrasateren, Bergararen, Oñatiren eta Gatzagarren kasuan, kale batzuetan edo herri osoaren kasuan, alde aurretik telefonoz deitu behar da. Hori ere ahaztu egiten dugu askotan: "Gertatu izan zaigu azken momentuan abisatzea beste herritar batek, jasotzeko tresnak ikusi dituela esanaz", dio Mikel Jaiok.

BESTE IRTENBIDE BAT

Zer gertatzen da inork tresnak premiaz bota behar baditu?

Kasu horietarako beste irtenbide bat ere badago: HA deritzenak (Hondakindegia Alternatiboak). Debagoienean hiru ditugu: Arrasaten, Ibarretakoa (Markulete industrialdean, Gesalibarren); Bergaran, San Kristoba-



MONIKA BELASTEGI

Aste honetan pasatu berri da Mankomunitatea Bergararik eta Leintz Gatzagatik, tresnak batzera.

len (Angiozarko errepidean); eta Oñatin, Urrutxun (Garagaltza auzoan). Urte osoan daude zabalik, goiz eta arratsalde, abuztuan izan ezik: orduan, goizez bakarrik egoten dira zabalik.

Arauk honakoak dira: ez da industria jatorriko hondakin onartuko; tresnak norberaren ibilgailuan eraman behar dira; ibilgailu horren gehieneko pisu baimendua 3.500 kilokoa

izango da; tresnon bolumena 2 metro kubikora eta pisua 750 kilora mugatuko da, aste eta erabiltzaile bakoitzeko; eta behin tresnak bota ondoren, lekua garbitu behar da.

BILKETA EGUN ETA ORDUAK Debagoieneko herri bakoitzak bere bilketa-egunak ditu

Bilketa-ordutegia berbera da ia ibar osoan (20:00-22:00), baina ez bilketa-egunak. Arrasaten, hileko bigarren eta laugarren martitzenetan; Gatzagan, hileko lehen eta hirugarren eguenetan; Bergaran, hileko lehen eta hirugarren martitzenetan; eta Eskoriatzan, Aretxabaletan, Elgetan eta Antzuolan, hileko lehen eta hirugarren eguenetan. Oñatin bigarren egunean jasoko dira, eta tresnak bilketa-eguneko 08:00ak aurretik utzi behar dira kanpoan.

TELEFONOZ DEITU Tresnak bota behar badituzu, alde aurretik abisatu


Hona hemen tresnak bota aurretik nora deitu behar dugun: Arrasaten, 943 71 19 38 telefonora; Gatzagan, 943 71 47 46 zenbakira; Bergaran, Urteaga eta Gabiria kalekoek edo Labe Garaietatik Angiozarreraino, San Lorentzoko zubitik Osintxuraino edo zubitik Uberarainoko bizilagunek 943 77 91 06 telefonora deitu beharko dute; eta Oñatin, 943 78 04 11 telefonora. Hor abisatu beharko dugu herriko zein puntutan utzi behar ditugun etxeko tresnak.

BOTA DAITEZKEEN TRESNAK Gehiena birziklatu egiten da, eta beste zati bat, erraustu

Kale bilketa zerbitzuak ia denetariko tresnak onartzen ditu: lerro zuriko tresnak (txatarrerako geratzen dira), lerro marroiko eta grisekoak (teletxak, ordenagailuak... Horiok Zamu-dioko enpresa batek kudeatzen ditu, birziklatuz edo txatarrerako erabiliaz) eta bestelako altxariak (oheak, armairuak...). Altxariok Arrasatera eramaten dira; han metala eta egurra aprobetxatu egiten dira. Gutxi gorabehera pisuaren erdia berriro erabiltzen da eta bestea, erraustu.

HONDAKINDEGI ALTERNATIBOAK Ia mota guztietako hondakinak bota ditzakegu HA deritzenetara

Hondakindegia Alternatiboetara honakoak bota ditzakegu: zura eta zurezko altxariak; etxetako obra txikien hondakinak; mota guztietako pilak; metagailuak, bateriak, agortuak...; fluoreszenteak, euren ontzikien barruan; metalezko tresnak (erradiadoreak, bizikletak...); papera eta kartoia; plastikoa; beira; erradiografiak; bizikleten pneumatikoak (ez ibilgailu motorizatuenak); inprimagailuen toner-karkasak; eta kaleko bilketarako uzten ditugun tresnak.



IKER BARANDIARAN

Udaletako euskara zerbitzuetako teknikariek prentsaurrekoa eman zuten argitaratu berri duten idatzi bilduma aurkeztuko.

Udaletako euskara zerbitzuek idatzi bilduma aurkeztu zuten Arrasaten

Besteak beste, gonbitak, zorion agurrak eta oharrak jaso dituzte

OXEL EROSTARBE

Debagoieneko euskara zerbitzuek **Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak...** idatzi bilduma aurkeztu zuten eguaztenez. Eguneroko bizimoduan egin beharreko idatziak egiteko argibideak ematen dira bilduman. Guztira 10.600 ale banatuko dituzte Debagoiengan.

Arrasateko Monterron jauregian aurkeztu zuten Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek **Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak...** izenburuko idatzi bilduma. Euskara zerbitzuek landutako testu sorta bat dute bertan. Eta, kasuan kasu, edonork erabil ditzakeen gonbidapenak, agurrak, gutunak, erreklamazioak, eta abar batzen ditu.

Idatzi bildumak eguneroko gertatzen diren egoeretan idatziak egiteko orduan sortzen diren zalantzak argituko dizkigu: erreklamazioak zelan egin, gutunak zelan hasi eta zelan amaitu, doluminak zelan eman, eta abar. Aha-lerin berezia egin dute sarrien erabiltzen diren idatziak aukeratzeko, baita diseinu erakargarria eta erabiltzeko erraza den formatua aukeratzeko ere.

ASKOTARIKO IDATZIAK EGITEKO MODUAK
Idatzi bilduman era askotako idatziak aurkituko ditugu: gonbitak, zorion agurrak, doluminak ematekoak, eskolako idatziak, etxe atariko komunitateen idatziak, bidaia agentziekiko gutunak, erreklamazioak, udalarekiko harremanetan herritarrek era-

biltzen dituzten idatziak... Eta idatzi mota bakoitzaren adibideak jaso dituzte.

GUZTIRA 10.600 ALE BANATUKO DITUZTE
Liburu bilduma herriz herri banatuko dute. Eta interesa duen edonork eskuratu ahal izango du.

Arrasaten, esate baterako, AED-ko bazkideei eta Udalarekin harremana euskaraz izatea eskatu dutenei banatuko diete hasiera baten. Eta Aretxabaletan eta Aramaion etxez etxe banatuko dute. Guztira 10.600 ale banatuko dituzte Debagoiengan.



ROSA MONDRAGÓN
ARAMAIOKO EUSKARA TEKNIKARIA

"Egunero gertatzen diren egoeretan erabil daiteke idatzi bilduma"

Eguaztenez aurkeztu zenuten Idatziak liburuxka. Zein da idatzi bilduma horren helburua?

Idatziak izenak berak esaten duen moduan, idazki sorta da. Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuok batera egindako lanaren emaitza da. Idatzi sortak edozeinek eguneroko gertatzen diren egoeretan erabiltzen dituen idatziak batzen ditu. Hau da, umea gaixotzen bazaigu eskolara oharra bidali behar da,

eta askotan zailtasunak izaten ditugu ohar hori euskaraz idazteko. Horren ereduak, adibidez, bertan aurkituko ditugu. Eguneroko izaten diren hainbat egoeratan zailtasunak izaten ditugu euskaraz idazteko. Zenbait eredu batu ditugu.

Bilduma egiteko orduan, eguneroko kontuetan oinarritu zarete. Ala?

Bai, horrela izan da. Helburua izan da edozeinek erabiltzeko moduko ereduak batu eta eredu horiek eskura izateko bideak

ezartzea. Herritarren artean banatuko dugu idatzi bilduma, norberak momentuan behar duen eredu erraz topa dezan.

Zelan zabalduko duzue bilduma?

Debagoiengan 10.600 liburu banatuko ditugu. Herrian herriko euskara zerbitzuek erabakiko dute zelan egin. Horrez gainera, udaletako webguneetan ere sartuko dugu idatzi bilduma. Horrenbestez, herritarrek behar dutenean erabiltzea izango da hurrengo pausoa.

ELKARRIZKETA/BATASUNA, LEGEZ KANPO

MIKEL EGUREN/BERGARAKO ZINEGOTZIA

"Duda barik, gure ideiek bizi jarraituko dute"

O.E.


Astlehenean, denok uste genuen baino lehenago, Batasuna legez kanpo lagatzeko erabakia hartu zuen Auzitegi Gorenak. Bergarako zinegotzi Mikel Egurenekin egon gara erabaki horren gaineko balorazioa egiteko.

Zer balorazio egiten duzu Espainiako Auzitegi Gorenak hartutako erabakiaren gainean?

Guretako ez da ezustekoa izan. Bagenekien azkar ibiliko zirela, hauteskundeak hor daude-eta. Uste baino azkarrago izan da, ordea, aste bukaera tartean lau egun izan dituztelako erabakia hartzeko. Berritri ere argi gertu da gobernu faxista daukagula. Eta ez dagoela botere banaketarik, gobernu eta botere judiziala sintonian daudela. Hala ere, ez goaz biktima papera betetzera. Argi daukagu eraso ez dela gure aurka bakarrik. *Egunkaria*-ren aurkako operazioa ere hor dago. Eta azken urteotako operazioek ere argi laga dute hau ez dela gauza isolatua edo ezker abertzalearen aurkako eraso bakarrik. Zuzenean Euskal Herriaren kontrako dinamika genozida darabilte. Euskal Herriko disidentzian ezker abertzalea da lehenengo ilaran dagoena. Horregatik, agian, guk jasaten dugu gehien.

Batasuna, EH eta HB ezabatu egungo dituzte Alderdi Politikoen Erroldatik. Zer eragin izango du zuzen jardunean?

Galdera hau beste batzuek erantzun behar lukete. Interesgarria izango litzateke EAJri, EAri, eta abarri honen gainean zer iritzi daukaten galdetzea. Gauza bat da hitzez gertatzen esatea. Gu aspalditik gabiltza esaten hemen demokraziarik ez dagoela. Eta demokraziarik ez badago, hemen ezin da modu normalean jokatu. Galdera besteei egin behar zaie. Berdin jarraitu behar dugu? Estatutua gestionatzen jarraitu behar dugu? Hitzetatik ekintzetara pasatu behar gara. Batasunak edo ezker aber-



"Maiatzeko hauteskundeak ez dira baldintza demokratikoetan egingo"

tzaleak defendatu duena herriaren zati handi batek defendatzen dituen ideiak dira. Horren harira, ez daukagu dudarik ideia horiek bizi jarraituko dutela. Ardatza autodeterminazioa izanda, horren gainean lanean jardungo dugu.

Batasunak beste talderen bat abiaraziko balu hura ere ilegalizatu egingo luketela esan dute.

Batasuna jokoz kanpo geratzea baino garrantzitsuagoa da Batasunak zituen ideiak aurrera ateratzea. Ez daukagu dudarik ideiak defendatzeko aukera izango dugula. Ondo ikusten ditugu AuBk egindako planteamenduak eta herri askotan sortutako plataformak. Argi daukagu, ordea, horiek ez direla Batasunaren jarraipena.

Zuen itzaropena zein da?

Sententziak argi utzi du maiatzeko hauteskundeak ez direla baldintza demokratikoetan egingo. Aukera guztiak ezin izango dira berdin defendatu. Ahal dena egingo dugu ezker abertzaleko ideiak hauteskundeetan izateko.



Hilarion
jatetxea-taberna

Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69

Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

Eguraldi gozo eta epela izango da nagusi gaur hasiko den udaberrian

Negua, aldiz, oso hotza eta euritsua izan da, azken urteotan ez bezala

LEIRE KORTABARRIA

Negu "tipiko" bati adio esango diogu, eta dagoeneko ondo sumatzen eta gozaten hasia dugun urtaro berriari, udaberriari, ongiatorria emango diogu gaur, martxoak 21. Negua zelakoa izan den eta loreen urtaroa benetan hala izango ote den jakiteko une egokia.

Udaberriko tenporak pasatu berri ditugu: hain zuzen ere, martxoaren 12an, 14an eta 15ean izan ziren. Horiei adi-adi begira ibili da Pello Zabala Arantzazuko behatokiko meteorologoa, eta orain, urteko urtarorik laburrena (88,99 egun irauten du; neguak, 89,84 egun) zein itxurarekin datorkigun azaltzeko moduan dago.

"Ez dugu bestaldeko udaberriarik izango", diosku Pello Zabala. "Lehenengo, suabe-suabe etorriko da, dagoeneko suma dezakegun moduan. Garbia eta sikua izango da, hego haizea nagusi dela". Giro eder horrekin gozatzeko ez dugu martxoaren 21era arte itxaron beharrik izan; negu bukaeran ere izan dugu hego haizearen laztana.

ASTE SANTUAN, TXARRERA

Aste Santu aldera, ordea, giroa zikintzen hasiko da, Zabalaren iritziz: "Apiril erdialdetik maiatz erdialdera itsaso aldetik hainbat zikinkeria etorriko da, eta euria egingo du. Hori beharrezkoa izango da, ordea, naturak bere zikloa jarrai dezan". Egun lainotsu horien ondoren,

gero berriro hego haizeak gozotuko ditu bazterrak.

Horrenbestez, badirudi udaberri nahiko tipikoa izango dugula, ezuste handi barik. Negua ere halakoa izan dugu: hotza, euritsua eta elurtsua, batez ere, erdi aldera. Hala ere, neguko tenporek iragarri zuten moduan, bukatu, epel-epel bukatu da.

Negua, izenari men eginez

"Aurreko negu bigunen ostean, honakoa gogorragoa izan da", diosku Pello Zabala meteorologoa. Tenporek hala adierazi zuten, bere sasoiari: "Negurako hego haizea iragarri zuten neguko tenporek; baina banuen susmoa erdialdera neguko erasana izango genuela", azaltzen du Arantzazuko frantziskotarrak. "Errege egun aldera, ilargi berriarekin, epeltasun hori aldatu egingo zela bistan zen, eta hala izan zen, neguaren bigarren zatian, batez ere", gaineratzen du.

Neguaren erdialdea oso zorrotza izan zen, elur eta euri ugariarekin. Debagoiengan urtaroko egunik hotzena otsailaren 18a izan zen: batez besteko tenperatura -5 gradukoa izan zen. Egun beroenaren bila ez dugu oso atzera joan beharrik izango: martxoaren 11k 27 gradu ekarri zizkigun. Egun euritsuena urtarrilaren 30a izan zen: 60,1 l/m² jaso ziren, eta aste osoan, 263 l/m².



Ibarreko hainbat lagun, AuB bilgunean

Autodeterminaziorako Bilguneak maiatzaren 25eko hauteskundeetara aurkeztea erabaki zuen joan den zapatuan Bilbon egindako topaketetan. Horretarako, apirilean sinadura batzea hasiko du. Bilboko topaketetan parte hartu zuten herriz herriko plataformak, bestalde, udal hauteskunderi begira izango duten jarrera erabakitze-ko batzarrak egiten hasiko dira. Oraingo zapatu, eguerdian, esaterako, horixe egingo du Oñatiko Ereitten Herri Batzordeak hango Unibertsitatean. /E.A.

DEBAGOIENEAN LABUR

Euskadiko Kutzak bulegoak zabaltzen jarraituko du, irabaziek behera egin arren

Orain dela bi urte baino irabazi txikiagoak izan zituen iaz Euskadiko Kutzak: hain justu, %7 gutxiago, batez ere, burtsaren krisia dela-eta. Guztira 100 milioi euroko irabaziak izan zituen 2002an. Hala ere, aurrez ikusitako zabalkunde planari eutsiko dio. Horrela, aurten 18 bulego zabalduko ditu: lau Hego Euskal Herrian eta beste 14 Espainian zehar, Aragoi eta Gaztela Leonen, hain justu ere. Urtea amaitu orduko, Euskadiko Kutzak 340 bulego izango ditu; 95, Espainian barrena. /E.A.

Lanuztea egin dute gaur metalgintzan, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deituta

Lan hitzarmena negoziatzen dabilta metalgintzan sindikatuak eta enpresaburuak. Negoziazioak, baina, ez atzera ez aurrera daude une honetan, bi aldeek ikuspuntuak urrun daudelako. Hori dela-eta, lanuztea egin dute gaur Gipuzkoako metalgintzan, sindikatu nagusiek deituta. 57.500 langile dabilta Gipuzkoan metalgintzan lanean. Gaurko lanuzteaz gain, apirilaren 4rako beste bat deitu dute Debagoiengan. Soldatak %6,5 igotzea eskatzen dute sindikatuek. Enpresaburuak, berriz, %2,45 igotzea eskaintzen dute. /E.A.

Baserriguneetan sortutako plastikoa batuko dute datorren eguaztenean herriz herri

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarrekin ibarreko baserrietan plastikoa batzeko urtarilean hasitako kanpainari jarraituz, datorren eguaztenean egingo dute martxoko bilketa herriz herri. Honako plastikoa mota hau batuko dute: siloa batzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegian eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, eta negutegiko plastiko zuria. Ibarreko herri guztietan batuko dute, aurrez zehaztutako nekazariguneetan. /E.A.

Gipuzkoako errepideen maketak Bergaran ikusgai

Astelehenetik apirilaren 6ra arte, udaletxean

E.A.

Gipuzkoako errepideen gaineko hamalau proiektu garrantzitsuen maketak ikusgai egongo dira astelehenetik aurrera, bi astez, Bergarako udaletxean. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu du erakusketa. Herriz herri dabil.

Hamalau maketak osatzen dute erakusketa. Bakoitza errepide bati dagokio, eta lagungarri gisa azalpen panelak egongo dira. Horrez gainera, eskuliburu bat argitaratu du Diputazioak, egitasmo eta maketa horien guztien gaineko azalpenekin. Maketetako bi gure

ibarrarekin lotuta daude: Eibar-Gasteiz autobidea eta Bergarako ekialdeko saihesbidea.

Lehenengoari dagokionez, Bergara hegoaldeko Ipiñarriko zubibidetik, Arrasaterainoko zatia ikusten da maketan. Bergarako ekialdeko saihesbidearen gaineko maketan saihesbide zati bat eta Telleriako lotunea ageri dira.

Erakusketan beste proiektu hauen maketak ere ikus daitezke, besteak beste: Debako sarreran, futbol zelaitik gertu, Mutrikura joateko egingo duten zubi eta errepide berriaren gainekoa; Etxegarateko zabalpena; Urumeako autobidea; Hernaniko saihesbidea, eta Ormaiztegi-Zumarraga autobidea.



09:00etatik 12:30era eta
16:00etatik 20:00etara.
Zapatuetan,
10:00etatik 13:00etara.

Sukalde eta horma-armairu italiarren azken belaunaldia

- Diseinu italiarra zure esku
- Debagoieneko banatzaile ofiziala
- Bost urteko bermea
- Proiektu pertsonalizatuak
- Bi solairuko erakusketa
- Merkatuko prezio onenak

ARMEKO Sukalde italiarrak

Kataide industrialdea 6. pabilioia • Tel.: 943 71 25 08 • ARRASATE

**TOLDOS
LECE**

Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

Zabalik

EDORTA
MENDIETA

Utzi bakean

Hau irakurtzen hasiak zaretenerako, baliteke Basora eta Bagdad den bonbak jaurtitzaren hasita egotea. Hori bai, e!, demokraziaren onerako. Munduaren mesederako. Kabroi asko dabilelako hortik zehar eta, jakina, Nazio Batuen Elkarrekin bere lana egin ezean, norbaitek hartu behar duelako bere gain ardura hori. Eta nor hobeto Bush, Blair eta Aznar baino. Hain arduratsuak eta kementsuak hirurak...

Halakorik esateko ere aurpegi galanta behar du inork. "Munduak zer behar duen ez badaki, guk esango diogu", alegia. Baina... nik hau lehenago entzuna dut beste inon. Bai, ba, munduak ezagutu duen faxista orok erabiltzen duen diskurtso berbera darabilte hiru hauek. Zertarako herriei edo eta herritarrei hitza eman ez baldin badakite aukera onik egiten. Hala bada, norbaitek jarri behar du mundua bide onean; norbaitek eman behar digu argia noraezean gabiltzanoi. Beno..., eman..., argia bakarrik ez, argia eta egurra, ze argiarekin bakarrik ez omen gara gauza izango bide egokitik joateko eta motibazio estrapurren bat ere ez zaigu gaizki etorriko. Demonio, hau etorkizuna gurea!

Bakea eta segurtasuna aldarrikatzen dute, baina hiru hauek muturra sartu duten inon ez da ez bakerik ez segurtasunik sumatzen eta gauzak hobera beharrean okerrera doazela apustu egingo nuke.

Saddam Hussein ere kapullo haundi bat dela denok dakigu, ala ez? Eta dagoen lekuan mendebaldeko agintariek jarri zutela eta ez herriak. Hori ere badakigu. Eta, gainera, agintari haiek eman ziotela armatarako teknologia guztia, une haietan Amerikako Estatu Batuen eta abarren interesendako ona zelako.

Nork pentsatu dezake, beraz, hauek mesedegarri-rik egingo dutenik? Historia errepikatu egiten da behin eta berriro, baina hauek ez dute sekula ikasiko.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefona: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Joan zaitetze
antzarrak ferratzera

Barkatu adierazpena, baina merezikoa dute. Eraso egin gaituzte-eta! Bai eraso politikoa, euskararekiko eraso, Euskal Herriari eraso egin diote. Orokorrean esanda, propagandako estrategia zikina izan da. Arazoak zituztela agerian zegoen, euren Prestige osoa galduta zuten. Orduan etorri zen eraso, jendearen begirada lekuz aldatzea nahi zuten. Lortu dute, baina begiari hona begira dituztela, belarriak ere jartzera derrigortuko diegu. Gure txanda da, entzungo gaituzte.

Baina gure eraso diplomatikoa izango da. Egunkaria ixtea euskara ixtea da, eta euskara ixten zutenak aspaldi hil zirela pentsatzen genuen, baina ez. Eta gu, geure pentsaera prentsan agertuko genuelakoan. Joder! Atzerakada itzela da, Frantziar iraultzan lortutako baloreengatik borrokatu beharra berriro, prentsa askatasunaz ari nahiz, alegia. Egunkaria itxita euskara ixtearekin batera, jende askoren bizimodua eta lan tresna ixtea lortu dute. Muturrean emango diegu, eta ikusi egingo dute berpizteko dugun ahalmena.

Presoez arduratzeko momentua ere bada. Torturak jasan dituzte. Beste esku-bide bat zapaldurik oraingoan ere. Torturaren gainean nahi dutena esango dute, baina denok dakigu egia zein den. Alegia, oraindik ez dugu sumarioa ezagutzen, gordeta baitute.

Estatu espainolari mezua: Euren etxeak miatu eta euskararen inguruko jende garrantzitsua atxilotu duzuelako, joan zaitetze antzarrak ferratzera!

GOIZEDER CABALLERO
Arrasate

Ikastolatik

Otsailak 20. Lanera heltzeaz bat jakin genuen albiste. Amesgaiztoa bazirudien ere, egiazkoa zen.

1990ean argia ikusi zuen lehenengoz. Jadanik 13 urte zituen. Dagoeneko kokortuta, sustraituta, errotuta, gure bizitzan sartuta. Akabo! Agindu judizial batek eman zigun zartada, kolpe sikua. Euskaldunon Egunkaria itxi dutela. Negargura eta inpotentzia. Horiek lehenengo une haietako sentimenduak.

Denborak bere lana bete du, zorionez, eta gaur, martxoaren 13an, indarra eta kemena ere sentitzen ditugu. Umezurtz utzi gaituen injustizia itzel horren aurka gure ahotsak, gure gogoak eta gure lana martxan jarri ditugu jada.

Izan ere, ikastola eta berau osatzen dugunok ezin gaitzek ezer egin gabe gera. Egunkaria-k bezala, euskal kultura eta euskara zabaltea eta normalizatzea dugu gure xederik oinarritzkoena, egiteko funtsezkoena.

Euskaldunak gara eta euskaraz bizi gura dugu. Horregatik gaur, beste askok bezala, kalera aterako gara, aldarrikapen eta garra-si bateratu batean: Egunkaria aurrera! Bai euskarari!

ARIZMENDI IKASTOLA
FERIXALEKUKO IRAKASLE TALDEA
Arrasate

Erabateko elkartasuna

Martxoaren 13an ordubeteko lanuztearekin bat egin eta aste osoan zehar sindura batzen ibili eta gero, prentsa euskaldunak eta, oro har, adierazpen askatasunak jasan duen eraso ikusita, Arrasateko Udaleko langileok haxe adierazi gura dugu:

1. Erabateko elkartasuna adierazten diegu Euskaldunon Egunkaria, Argia, Jakin eta Herri Irratiaren erredakzioei eta langile guz-

tiei, hedabide horietako kideen atxilotetako direla-eta.

2. Salatu egiten dugu geure indar guzti-ekin euskarazko egunkari bakarria ixteko ekimena. Uste dugu adierazpen eskubidearen aurkako eraso izugarria dela.

3. Atxiloteta eta itxiera horiek direla-eta, eskatzen dugu atzera botatzeko justiziak hartu dituen erabakiak, komunikabide horietako langileek lanean jarraitu dezaten eta iragarle nahiz irakurleek informazioa jasotzen segi dezaten.

4. Gogor salatzen dugu atxilotuek jaso dituzten torturak.

5. Prest gaude Arrasaten edo Euskal Herrian antolatzen diren elkartasun ekin-tzetan parte hartzeko.

6. Azkenik, ozen esan nahi dugu, Egunkaria, aurrera!

ARRASATEKO UDALEKO LANGILEAK
Arrasate

'Egunkaria', aurrera!

Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasleek, Airakasleek eta langileek gure elkartasuna adierazi nahi dizuegu Egunkaria-ko langile guztioi. Eutsi goiari!

Egunkaria izan da guretzat ikasliburu, euskara ikasi eta euskaraz bizi nahi dugunontzat ezinbesteko tresna; orain Euskal Herriatik desagerrarazi nahi dutena, ez dakigu zein aitzakiarekin. Euskaldunon Egunkaria berriz ere geure mahai gainetan, geure artean behar dugu, albisteak hizpide izan ditzagun.


ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIKO
LANGILEAK
Arrasate

Gure basoak zaindu

Gaur egun egindako lanak eta hartutako erabakiak izango dira etorkizuneko elgetarren oinarria. Biharko belaunaldiei nolako herria utzi gure esku dago. Horretxegatik da beharrezkoa herritarrek eta udalek gure basoak zaintzeko kontzientzia hartzea. Baina horretarako zer daukagun jakin behar genuke denok, hau da, herriko basoak non eta nola dauden.

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Azken urteotan baserritar batzordetik hau bideratzeko esfortzu galanta egiten ari gara, aurrekontu aldetik eta auzolaneko ekintzak bultzatuz.

Gaztelu aldean egin diren garbiketarik beste itxura bat eman diote inguru hari, eta hango gaztaina, haitz eta pagok arnasa hartu eta bistaratu egin dira.

Egoarbitzan ere orain hiru bat urte hasi ginen auzolanean inguru hura txukuntzen, emaitzak begi bistakoak direlarik. Aurten beste pausu bat eman dugu, bertan dauden herri sailetan zortzi mila pago inguru landatu dira. Denonak diren baso hauek denon artean zaindu behar ditugu.

Landareak sartzea errazena da, gero haiek aurrera irteteko urteroko lana dauka. Lan horretan bi mila egongo dira, Udaletik laguntzen segitu beharko da urteroko aurrekontuetan, herri basoak bere lekua izanda. Eta baita auzolanean ere egin beharko dira lan batzuk.

Gaztetxoengan ingurumenaren aldeko kontzientzia sortzeko, hor daukagu hilaren 23an Zuhaitz Eguna. Landatzen ikastea garrantzitsua da, baina gero ingurua garbitzea ezinbestekoa da landare aurrera irteteko, eta hori erakutsi behar diegu geroko belaunaldiei.

ELGETA AUZOLANEAN
Elgeta

Ipintza Institutuan, adierazpen askatasunik ez!

Euskal Herriak jasan duen azken erasoan aurrean, eta bereziki *Egunkaria*-ren kasua salatuz, Bergarako ikasle mugimenduak, otsailaren 19an, mobilizazio egun batera deitu zituen Bergarako ikasle guztiak. Helburua zen ordubeteko lanuztea egitea, San Martin plazan elkarretaratzea egiteko.

Ipintzako ikasleoi, protesta hau hedabideetan agertzen ez zela aitzakiatzat harturik, eta gure adierazpen askatasuna ukatuz, irakasleek ez ziguten mobilizazio honetan parte hartzen utzi. Egun hartan, indarrak bateratuz kalera ateratzen eta gure ideiak adierazten ez uzteaz gain, Ipintzako irakasleek komunikatu bat bidali zuten GOIENKARIA-ra, *Egunkaria*-rekin eta langileekin solidarizatuz, mozorroa jantziz, herriaren aurrean ondo gelditzeko asmoarekin.

Euskaldunon Egunkaria-rekin egin dakoa salatu nahi izan dute Ipintzako irakasleek. Baina ez al dira ohartzen, guri, Ipintzako ikasleoi, egindakoa, hau da, gu isilaraztea, gauza bera dela?

Guk ere, zuek bezala, gure ideiak eta jasanezinak aldarrikatzeko eskubidea dugu, horregatik eskatzen dugu adierazpen askatasuna denondako!

BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUKO
IKASLE BATZUK
Bergara

Jolastokia, aparkaleku

Kaixo, bergararrok. Gu 11-12 urteko neska-mutikoak gara. Arazo larri bat aurkeztu nahi dizuegu. Aste bukaera eta jaiegunetan gure Aranzadi ikastolako jolastoki ederra, herri gutxi dutena, autoen aparkaleku bihurtzen da. Toki ezin hobe da bizikletan, futboleak, eskubaloian, pilotan... jolasteko. Hemen herriko neska-mutikook jolasten dugu.

Gure eskaera da mesedez hau errespetatzea eta gure jolastokian aparkatu beharrean, ondoko kalean edo parkingean aparkatzea. Besterik gabe, eskerririk asko.

ARANZADI IKASTOLAKO
NESKA-MUTIKO TALDE BAT
Bergara

Aita Menni eta eroetxeak

Azken asteetan Aita Menni ospitaleari Aburuzko gutunak irakurri ahal izan ditut GOIENKARIAN. Baina, esango nuke, eroetxeen gaineko eztabaida kanpotik ikusita izan dela. Nik barrutik ezagutzen ditut. Ondo, gainera. Ni gaixotzat hartua izan nintzen eta naiz, eta iritzia eman dezaket oso ondo, urteak baitaramatzat eroetxeetan. Iritzi laburra, ez baitago lekurik.

Eroetxeetan torturatu egiten da. Bai, ondo irakurri duzue, torturatu. Psikiatrak gizaki ankerrak dira, negozioa bakarrik nahi dutenak: bezero asko eta luzaroan egon daitezen gaixo. 20 psikiatratatik bat bakarra da ona, bihotz onekoa, bederen. Beste guztiak, zitalak. Psikiatra bati hitz egitea horma bati hitz egitea bezala da: jaramonik ere ez.

Gakoa botiketan dago, hor dago deabrua; sendagaiak deitzen diote, baina pozoi hutsak dira. Sendagai horiek ia guzotz ematen diete, setatiak dira horretan, eta horietaz libratzea oso zaila da. Bihotz oneko psikiatra bat aurkitu behar da eta asko borrokatu. Txit zitala. Sendagai horiek oso txarrak dira. Ton-to uzten zaituzte.

Nik denetik probatu dut eta esan dezaket pastillak, tantakak eta batez ere injekzioak, denak, txarrak direla. Gorputz egonezina, pairamena, handia kasu gehienetan, eta egoera psikologikoa hondatu egiten dute. Benetan dihardut. Botika horiek higuigarriak dira, gaixorazten zaituzte. Tortura, bai, tortura, dira botikok.

Sistemak huts egiten du, psikiatrak profitatzen dira, engainuaz, eta gaixoen marjinatu egoeraz.

Orain, behintzat, suertea daukat, aurkitu dut psikiatra on bat, oso bihotz onekoa eta urteetako sufrimendua kendu dit. Ez dut botikarik hartzen. Nork askatuko gaitu?

JON OTERO
Fontcalet espesxe psikiatrikoa
(Alacant)

Guk geuk erabaki dezagun

Autodeterminazio eskubidea munduan diren herri guztiei dagokie. Modu librean determinatzea ukatzen zaion herria ez da herri askea, ez da bere buruaren jabe, ez dauka erabakimenik. Autodeterminazioa ez da inori inposatu gura zaion ezer. Autodeterminazioa da herri honentzat izan litezkeen proiektu guztiak egingarriak izatea; kontuan hartuta, jakina, proiektu horiek guztiak mahai gainean jarri eta herriak egingo duela bere aukera.

Gaur egun, Euskal Herrian independentistak garenok ukatu egiten zaigu gure "etxe-proiektua" defendatzea. Are gehiago, independentistak izate hutsagatik torturatu eta kartzelaratu egiten gaituzte.

Hala ere, Euskal Herrian milaka eta milaka gara munduan bakarra eta berezia den herri —ez beste inor baino hobekak, ez beste inor baino ederragoak, baina bai ezberdinak— bateko partaide izatearen kontzientzia, sentimendua, sua, ondo-ondo barneratuta daramagunak. Su hori ez dadin itxungi, su hori babestu eta hauspotzeko, gure etxe propioa erai-

ki behar dugu, autodeterminatzeko eskubidea oinarri hartuta.

ARETXA PLATAFORMA
Aretxabaleta

Mugi zaitez!

Egungo lurralde zatiketan eta hizkuntza eskubideen urraketan oinarritzen den marko juridikoa mantentzeak euskararen heriotzara eramaten gaitu. Ezin baita ahantzi Osakidetza oposizioetan euskararen erabateko bazterketa, euskalgintzari normalizazio planak bultzatzeko jartzen ari zaizkion traba guztiak, hedabideek euskaraz informazio ez egin izana, justizian, euskalduntzen ez duten eskola ereduak gainditzeko borondate eza... herri proiektuei traba etengabeak jarri dizkiotenean, manifestazio batean parte hartzea eta adierazpenak egitea ez da nahikoa. Hogeitaz urteren ostean, iruzur bat bilakatu den eta suntuipen estrategia horren parte den espainiarren menpeko hizkuntza politikarekin jarraituz, euskara ez da biziko. Euskal Herria ezta ere.

Horregatik, euskararentzat irtenbideak lurralde osoaren baitan hartzea premia handikoa dugu. Ez dago hizkuntza bat berreskuratzetik, hizkuntza horren hiztunok osatzen dugun komunitate osoa kontuan izan eta hari dagozkion hizkuntza eskubideak aintzat hartu gabe. Euskarak ez du sasi irtenbiderik behar. Euskaldunoi dagokigu gure hizkuntza eta herriarentzat zer behar dugun erabakitzeko. Gure buruaren jabe, kanpo inposaketarik gabe, hizkuntza eskubideak bermatu eta euskara ofiziala lurralde osoan arautuko duen lege bakarra behar dugu.

Inoiz baino irmoago euskararen defentsa sutsua egiteko unean gaudela adierazi nahi dugu. Eguneroko lanaren garrantzia itzela da. Herritar guztiei zabaldu nahi dizuegu dei hori eta era berean, Euskal Herrian diren eragile politiko, sindikal eta sozial guztiei. Bakoi-tzak bere eguneroko lan eta eremutik, baina guztiok norabide berean, hots, euskaraz biziko den Euskal Herriantza hurbiltzen joateko pausoak eta konpromisoak bizkortzeko unean gaude. Euskara osoki normalizatzeko beharrezko dugun egitura, tresna eta neurriak gaurdanik hartuz, euskara eta Euskal Herriaren biziraupena kolokan jartzen dituen erasoaldi bortitzaren soka etengo dugu.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Nolakoa beharko luke izan gure ibarra 20 urte barru?

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Disenaua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Jose Miguel Toledo

ARKITEKTOA

“Denok nahi dugu lana, etxea eta aisialdia ahalik eta ingurune gertuenean edukitzea; asmo horri eutsi nahi diogu Debagoieneko Zatiko Planarekin”

Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Plana lantzen dihardute udalez udal azken asteotan. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da eta etorkizuneko hirigintza eta ekonomia arloetako plana zehaztea du helburu plan horrek; hau da, hamasei urte barruko Debagoiena zelakoa izan behar den finkatzea. GOIENKARIAk egoki ikusi du plana idatzi duen arkitekto taldeko buruari, Jose Miguel Toledo-ri, elkarrizketa egitea. Oraingo astelehenean Arrasateko udaletxean hitzaldia egingo du, 19:00etan.

ENEKO AZKARATE

Zer da Lurraldearen Zatiko Plana?

Lurraldearen ordenamendurako dokumentua da. Ez da ohiko hirigintza dokumentua, hori baino gehiago da. Lurraldearen Antolaketaarako Legetik garatutako dokumentua dela esango nuke. Euskal Autonomia Erkidegoa, hiru Lurralde Historikoak eta eskualdeak edo area funtzionalak zehazten ditu dokumentu horrek. Debagoienari dagokionez, eskualdea osatzen duten zortzi udalerriak eta Arabako Aramaio batzen ditu.

Zer helbururi erantzuten dio plan horrek?

Lurraldearen Zatiko Planak lurraldea ordenatzea, eta 16 urtean udalerrietako planak eta lurralde guztikoak uztartu eta zehaztea, du helburu. Beste modu batera esanda, etorkizuneko joko-arauak zehazten ditu. Ubideak, padurak, energia eolikoa, jarduera ekonomikoak, industriaguneak, etxebizitza publikoa, aisialdiguneak... Plan zehatz horiei guztiei batasuna ematen die eta plan zehatz horiek garatzeko baldintzak zehazten ditu. Debagoienak nortasun propio eta bakarra baduela onartu eta zehazten du planak eta, herrien interesak gaindituz, eskualdearen interes orokorrean erantzuten die.

Udal agintariak, baina, euren herrietan kirol, kultura eta aisialdi ekipamendurik osoenak eta onenak eta ahalik eta zerbitzurik gehienak izateko joerari eusten diote. Zelan uztartzen dira interes horiek eta Lurraldearen Zatiko Planarenak?

Egia da udal agintariak euren herrien interesei eusten dietela, batik bat, eta euren herrian nahi dituztela zerbitzu edo ekipamendu guztiak. Baina uste dut frogatuta geratu dela hori ez dela bidezkoa. Batez ere, herri txikienetan jabetu dira horretaz: Leintz Gatzagan, Elgetan, Antzuolan... badakite inoiz ez dutela sekulako igerilekurik edo kirol instalaziorik izango. Hortaz, nahiago dute Bergaran edo Arrasaten egin ditzatela gerozko kirol instalazioak, inon ez egitea baino. Horregatik uste dut komenigarria dela eskualdeko udal guztiek, lankidetzan, etorkizuneko planak gara ditzatela eta eskualde ikuspuntutik lan egin dezatela.

Zeintzuk dira gure eskualdeak, Debagoienak, dituen indargune nagusiak?

Kontuan izan behar dugu lehenbizi, eta lurraldekako planek horrela aitortzen dute, Debagoiena Euskal Autonomia Erkidego-ko hiru hiriburuetatik urrun dagoela eta, hortaz, ez dagoela ez han eta ez hemen; bakarrik dagoela, alegia. Azpiegitura eskasak ditu, gainera, eta horrek isolamendua edo bakardadea areagotu egin du. Baina, zail-

tasunak zailtasun, Debagoiena gauza izan da berebiziko prozesu ekonomiko eta soziala garatzeko. Modu endogenoan, industria prozesu izugarria garatu du. Orain, oster, isolamendu hori hautsi eta Autonomia Erkidego-ko garraibide ardatz nagusien, hau da, ipar-hego ardatzaren eta ekialde-mendebal ardatzaren erdigune bihurtuko da, Eibar-Gasteiz autobideari eta Beasain-Durango errepideari esker. Hortaz, babeserako jarra horretatik beste egoera batera pasatuko da, eta egoera berri horri begirako planak garatzea ezinbestekoa da. Bestalde, naturagune edo landagune ederrak ditu Debagoienak, eta hori zaindu beharreko balioa da, eta kontuan hartzeko etorkizuneko planak egiterakoan.

Eta premia nagusiak?

Garraibide azpiegitura eskasa du, hori jakinekoea da; baina, nire iritziz, Debagoienaren premia nagusia dira aisialdirako zerbitzu egokiak. Orain arte, Debagoiena eskualde industrialia izan da, beste ezeren gainerik. Oster, aisialdirako ekipamendu eskasak izan ditu. Eta horrek eragin du debagoienarrek aisialdi bila kanpoaldera irteera, Gasteizera, gertutasunagatik, eta kostaldera, batik bat. Hortaz, eskualdea lantoki bihurtu dute debagoienarrek, eta atsedenerako edo aisialdirako kanpora irten dira. Hori aldatu egin behar dela uste dut: kalitatezko lana, etxeak, aisialdiguneak... aldarrikatu behar dituzte debagoienarrek. Eta, hain justu ere, horren haritik doaz Lurraldearen Zatiko Planak Debagoienarako proposatzen dituen ekimen gehienak.

Zeintzuk dira ekimen konkretu horiek?

Hiru elementu nagusi planteatzen ditu planak: batetik, Elorregiko harrera eta informazio etxea; bestetik, Oñati inguruan, jarduera ekonomiko eta kulturalak garatzeko guneak; eta, azkenik, Urkuluko habitat alternatiboa, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza hartuko dituena.

Emango dizkiguzu bakoitzaren gaineko zehaztasunak?



DEBAGOIENA

“Azpiegiturak eskasak direla-eta, ibar honen isolamendua areagotu egin da. Baina, zailtasunak zailtasun, gauza izan da berebiziko prozesu ekonomiko eta soziala garatzeko”

KALITATEZKO ESKAINTZA

“Eskualdea lantoki bihurtu da, eta atsedenerako edo aisialdirako, kanpora irten da jendea. Hori aldatu egin behar da, kalitatezko lana, etxeak, aisialdiguneak bultzatuta”

URKULU II

“Urtegien parke handi bat egingo da Urkulun, oraingoa eta eraikiko den beste bat batuta, eta hainbat ibilbide sortuta. Bestalde, bainurako beste gune handi bat sortuko da”

POPULAZIOARI EUTSI

“Gaur egun Debagoienak duen arazoetako bat da lan egiteko toki bihurtzen ari dela: geroago eta gehiago dira hemen lan egin eta Gasteizen edo kostaldean bizi direnak”



ANDER GILLENEA

Elorregiko interkonektorea elementu sinbolikoa izango da, eskualdeko hiru herri nagusien lotune izaki. Triangelu horretan, harrera lekua, turismorako informazio-gunea, produktuen salmenta tokia... egongo dira. Oñatik, bestalde, lur zoru potentzial ugari duela kontuan izanik, kalitatezko industria eta teknologia jarduerak, batetik, eta aisialdirako, kirolerako edo kulturako guneak, bestetik, bultzatzea ahalbidetzen du. Esaterako, ekimen publikoko golf zelaia egitea. Ekimen horiek espazio fisikoan ondo uztartuz eta erabilera askotarikoak emanaz garatu beharko dira, jakina.

Eta Urkulu ingururako proposatzen direnak?

Hor inguruan sortu den hezegune berezia mugarritu egingo da, ondoren egingo den bigarren urtegiarekin, Urkulu II-rekin batera. Azken urtegi hori Urkulutik Zubillaga aldera egingo da, eta ubide biologikoak zaintzeaz gain, urari lotutako aisialdi jarduerak egiteko guneak bultzatuko dira, arrantzan eta arraunean egiteko, batik bat. Bestalde, urtegien parke handi bat egingo da bi urtegiok bata eta hainbat ibilbide sortuta. Jakina, eskualderako ur horniketa funtzioa betetzen jarraituko dute urtegi horiek. Ingurua berriro antolatzea, kontrolak ezartzea, erabilpen egokiak ematea... izango da kontua. Bestalde, bainurako gune handi bat ere sortu gura genuke, urtegi horietatik aparte. Ez genuke ur-parkerik egin nahi, baizik eta ingurunea errespetatuko duen aisialdirako gune bat. Horretaz guztiaz gainera, hotelen bat ere ingurune horretan. Eta modu bateko etxebizitzak ere bai. *Ekohiri* ari gara. Babestutako etxebizitzak eta libreak eraikiko dira, ohiko etxebizitza urbanoari alternatiba moduan: 1.000 bat etxe, Bedoña, Goroeta, Arkarazo eta Larriño inguruan, Bolibarrerantz kaminoa zabalduta.

Eta Bergara aldean?

Bergara aldean, Antzuola eta Elgeta-rekin batera, Arrasate eta Oñati aldean bul-


tzatzen ari diren unibertsitate ekimenak ere bultzatu gura genuke. Bergaran UNED dago, baita Errege Mintegia ere. Errege Mintegia birgaitu eta MUko fakultate batzuk han jartzeko aukera dago. Hortaz, eskualdearen garapen kultural eta akademikoan parte hartuko du Bergarak. Gainera, alde horretan natura eta aisialdiguneak ere bultzatuko dira: Gorla, Asentzio...

Etorkizunean eskualdean garatu nahi diren egitasmo horiek guztiak direla-eta, hainbat taldek kezka agertu dute eta gaiaren gainean eztabaida egin dadila eskatu dute. Garrantzitsua da herritarrek eztabaida horretan murgiltzea?

Herritarren interesari eta beharrei erantzun egokiak emateko bultzatu gura ditugu. Hortaz, oso interesgarria iruditzen zait eztabaidaguneak sortzea. Ez dut esango erreferendumaren aldekoa naizenik, uste dudalako horrelako kontuetan gaia ondo eza gutzen dutenek erabaki behar dutela. Baina herritarrek ondo informatuta egon behar dute eta haien iritzia kontuan izan behar da.

Azken urteotan, Debagoieneko populazioaren jaitsierari erantzutea da planaren asmoetako bat, ezta?

Bai, horrela da. Helburua da gaur egungo biztanle kopuruari eustea, edo 5.000 edo 10.000 biztanle gehiago izatera heltzea. Gaur egun, Debagoienak duen arazoetako bat da lan egiteko tokia bihurtzen ari dela. Hau da, geroago eta gehiago direla Debagoienean lan egin eta Gasteizen edo kostaldean bizi direnak. Arazo hori, gainera, areagotu egin daiteke etorkizunean, errepide sarea hobetzen doan neurrian. Hortaz, behar-beharrezkoa da eskualde honek dituen populazio arazoei aurre egitea, orain daukagun kopuruari eustea eta hemen lan egiten duten askori bizi izatera kanpora joateko motiborik ez ematea, edo kanpora joandakoak erreintegratzea. Labur esanda, denok nahi duguna erraztea: lana, etxea eta aisialdia ahalik eta ingurune gertuenean edukitzea.



ANDER GILLENEA

“Eskualdean 220 milioi euro inbertituko dira 16 urtean”

Lurraldearen Zati-ko Planean jasotzen den guztia egiteko zelako inbertsio publikoak aurreikusten dira?

Hurrengo 16 urteotan, plan hau garatzeko 220 milioi euroko inbertsio publikoa egingo da. Eta plana 16 urtera begira bada ere, lau urtean behin berrikusi eta zerbait aldatu behar bada aldatu egingo da.

Planaren kudeaketaz nor arduratu-tuko da?

Kudeaketarena da, akaso, airean gertatzen den kontua. Gaur egungo Debagoieneko Mankomunitatea ez da gauza horrelako plan bat kudeatzeko, baina beste erakunde baten ernamuina izan liteke. Azken baten, Udalak dira plan honetako onuradun eta protagonista nagusiak.

Eta, horrenbestez, noiz onartu gura duzue Debagoieneko Lurraldearen Zati-ko Plana?

Une honetan udaletan eztabaidatzen dabilta eta herritarrek ere ikus dezaketen hil honen amaierara arte. Edozelan ere, udal batzuek epea luzatzea eskatu dute eta seguruenez luzatu egingo da apirilera arte. Diputazioari dagokio behin-behinean onartzea. Kontuan hartu legealdia amaitzera doala; hortaz, uste dut eta apirilean onartuko dela behin-behingo, gero Jaurilaritzak onartuko duela behin betiko.

OÑATI

Euskal unibertsitatearen aldeko sinadurak batuko dituzte

BaiEusUni Euskal Herri mailako kanpainaren barruan, Oñatin ere talde bat sortu dute hainbat ikaslek. Bihar, hilak 22, euskal unibertsitatearen aldeko sinadurak batuko dituzte; 19:00etatik 21:00etara jardungo dute ekimen horren aldeko sinadurak batzen, Herriko Plazan.

Apirilaren 12an, berriaz, euskal unibertsitatea lortzeko kanpaina horren amaiera ekitaldia Oñatin bertan egingo dute. Euskal Herriko campus guztieta-ko ikasle eta irakasleak batuko dira egun horretan Oñatin. /A.I.



ESKORIATZAKO UDALA

ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak eta Eusko Ikaskuntzak sinatutako lankidetzak hitzarmenaren bitartez kultura ekintzak aurrera eramateko konpromisoa hartu dute

Eskoriatzako Udalak eta Eusko Ikaskuntzak lankidetzak hitzarmena sinatu zuten joan den eguaztenean. Hitzarmen horren bidez Eusko Ikaskuntzako bazkide ongile izango da Udala, eta 600 euro emango dizkio aurturteko elkarrekin. Dagoeneko hitzarmena sinatuta duten Euskal Herriko 50 herrirekin batera, euskal kultura zabaltzeko konpromisoa hartu zuen eguaztenean Eskoriatzak. Eusko Ikaskuntzak, gainera, 1978tik aurrera argitaratutako liburuen bilduma eta Eskoriatzako Udal Artxiboko dokumentu ugariaren transkripzioa batzen dituen liburuaren ale batzuk emango dizkio. Sinadura ekitaldian Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkatea eta Jose Luis de la Cuesta Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako presidenteordea izan ziren. /M.A.

ANTZUOLA

Oinezkoen babesgunea egingo dute Deskarga alderako sarreran

Egurribai baserriaren parean, Deskarga aldetik Antzuolako sarrera baino lehentxeago, oinezkoen babesgunea handi bat egingo du Diputazioak.

Lan horien proiektua Diputazioak egin du eta dagoeneko helarazi die Antzuolako Udaleko arduradunei.

Helburua da ibilgailuen abiadura murriztea. Izan ere, abiadura handian etortzen dira ibilgailuak Deskargako mendatetik behera, eta arrisku handia sorrarazten dute Errekalde eta Antigua pareko bidegurutzeetan. /A.I.

ELGETA

Epaitegiko liburuak zaharberritzeak 1.123 euroko kostua izango du

Azken hiru urteotan epaitegiko 21 liburu zaharberritu ditu Udalak. Gobernu batzordeak hildakoen erregistroko bederatzi liburu zaharberritzea erabaki ostean, epaitegiko liburu guztiak zaharberrituta geratuko dira. Aurrerantzean, koadernaketa gastuak bi edo hiru urteroko egin beharko ditu Udalak.

Erregistroko liburuak zaharberritzeak 1.123,20 euroko kostua izango du, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Departamentuak 314,54 euroko laguntza emango du. /O.E.

ARRASATE

Etorkinei laguntzeko Heldu programan parte hartuko du Udalak

Eusko Jaurlaritzaren Heldu izeneko programan parte hartzea erabaki du oraingo astean Arrasateko Udalak. Etorkinei laguntzeko programa da Heldu. Hain justu, hemen lan egiteko eta bizi izateko baimenik ez duten etorkinei laguntzeko. Izan ere, horrelako baimenik ez duten etorkinek arazo larriak izaten dituzte eguneroko bizimoduan aurrera egiteko. Eta Arrasatera egoera horretan dauden gero eta etorkin gehiago helden dabil.

PAPERAK LORTZEKO

Kontua da baimen horiek emateko konpetentzia Espainiako Estatuarena dela; Donostiako ordezkariaren bitartez ematen ditu Gipuzkoarako baimenak. Hortaz, Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ezer gutxi egin dezakete; etorkinei paperak lortzen lagundu, besterik ez.

Hortaz, Arrasaten egoera horretan dauden eta egoera hori erregularizatu

gura duten etorkinek zera egin beharko dute: Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo, eta han informazioa eta dokumentazioa eskatuko dizkiete. Gero, hori guztiari Eusko Jaurlaritzara bidaliko du Udalak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Abokatuen Kolegioarekin lankidetzan dabil, etorkinei laguntzeko. Atzerrikotasunari Buruzko Legean adituak diren abokatuen bitartez etorkinek behar dituzten baimenak lortzen ahalgintzeko tramite guztiak egingo dituzte Donostiako ordezkariaren bitartez. /U.M.

Zertzelada

Atzerrikotasunari Buruzko Legean adituak diren abokatuen bitartez etorkinek behar dituzten baimenak lortzeko tramiteak egingo dituzte.

BERGARA

Jaiak pizteko aukerak aztertzen dihardute herriko tabernariak

Bergarako tabernariak hainbat batzar egin dituzte, herriko jaiak pizteko aukerak aztertzeko. Tabernariak aspaldian Pazkoetako giroak behera egin duela sumatzen dute, eta jaien osteko aste bukaeran hainbat ekitaldi antolatze-ko aukera aztertzen dihardute. Pazkoak ekainaren 6tik 10era izango dira aur-

ten, eta hurrengo aste bukaeran ere (ekainaren 13tik 15era) hainbat ekitaldi antolatze-ko asmoa daukate tabernariak. Eguaztenean, martxoaren 26an, batzorra egingo dute Pertxa elkartean, 17.00etan.

Orain arte 20 bat tabernari batu izan dira, eta guzti partaidetza izan nahi dute. /EDU MENDIBIL



ARTXIBOA

Bergarako jaiak ekainaren 6tik 10era izango dira.

ARETXABAETA
Gure berbetaren erabilera bultzatzeko ekimena abian

Loramendi Euskara Elkar- teak herriko berbetaren erabilera sendotu gura du, eta horretarako ekimen bat jarriko du abian. Hilabete- an behin *Dakixenak eindaixela* izeneko berripape- ra banatuko dute Kurtze- barri Eskolan, DBHko ikasleen artean. Berripa- per horretan gure berbe- tan idatzitako berriak, agenda eta komiki txiki bat izango dituzte ikasleek. Horrez gain, lehiaketa baten parte hartzeko auke- ra izango dute. *Dakixenak eindaixela*-ko lehenengo zenbakia datorren astean banatuko dute. /A.L.

ARAMAIO

Internet bultzatzeko KZGunea zabalduko dute maiatzean

Maiatzaren erdialde inguru- an KZGunea zabalduko dute Aramaion, kultura etxean. Zortzi ordenagailu izango ditu, guztiak Inter- netera konektatuta. Izan ere, KZGunearen helburua da aramaioarren artean Interneten erabilera bul- tzatzea.

Horretarako, lehenengo bi hilabeteetan Internet erabiltzen erakusteko eskolak emango dituzte. Eta gero, zortzi ordena- gailuetatik hiru utziko dituzte Aramaion, jendeak gura duenean erabiltzeko. Horretarako izena eman beharra dago. /U.M.

LEINTZ GATZAGA
Gatzagako Udalak onartu du 2003rako udal aurrekontua

Udalbatzak joan den aste- an onartu zuen 2003 ekital- dirako aurrekontua. 386.552 eurokoa izango da. Kopuru horretatik 107.341 euro egin beharreko inbertsioetarako izango dira: Gatz Museoa- ren proiektua, Rosario eta Pilar kaleen arteko karka- baren urbanizazioa, Labi- dea deitutako lekuan lan kartografikoa, Dominaga aldera ur gehiago eramatea eta artxibo historikoa egi- tea izango ditu, besteak bes- te. Bestalde, umeendako 5x8 metroko skate park-a jarri- ko du Leintz Gatzagako Udalak herrian. /A.G.

Oñatiko XII. Duatloia jokatu da bihar

Maila handiko duatloilariek hartuko dute parte; tartean, Arozenak, Ezpeletak eta Aperribaik

Bihar, zapatua, Oñatiko XII. Duatloia jokatu da. Proba 15:30ean hasiko da. Ibarreko eta Euskal Herriko atleta onenek hartuko dute parte bertan. Iaz, 230 atletak hartu zuten parte Oñatiko Duatloian, eta aurten, kopuru horretara helduko direla espero dute antolatzaileek. Guztiek ere 52 kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre.

Urtero Oñatiko Triatloi Taldeak antolatzen duen proban maila oneko atletak izaten dira. Iaz, 230 parte-hartzaile izan zituen probak, eta aurten, kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek. Gertatutako ibilbidea iazkoaren antzerakoa da, eta guztira 52 kilometro izango ditu. Herri barruan gertatutako lau kilometroko ibilbideari lasterka bi bira emanez hasiko dute proba. Horren ondoren, bizikleta hartu eta 40 kilometro egin beharko dituzte. Oñatin irten eta Elorregi, Bergara, Antzuola, Deskarga eta Legazpi zeharkatu beharko dituzte Oñatira bueltatu aurretik. Proba amaitzeko, bira bat eman beharko diote lasterka lau kilometroko ibilbideari.



Iaz bezala, 230 lagun inguru batuko ditu Oñatiko XII. Duatloian. Proba plazan hasiko da, 15:30ean.

MAILA HANDIKO ATLETAK IZANGO DIRA
Estatuko triatleta onenen artean dagoen Virginia Berasategik dagoeneko eman du izena Oñatiko proban. Iazko irabazle Jon

Arozena ere bertan izango da. Baita denboraldia Barakaldoko duatloia irabaziz hasi duen Zuhaitz Ezpeleta ere. Antxintxika taldeko Jon Aperribaik ere

eman du izena. Frantziatik, Pautik, hain zuzen ere, maila handiko lau lagun etorriko dira.

OXEL EROSTARBE

Kirolabur

SASKIBALOIA/ARRASATE

Calasancio taldeari irabazi ostean, Kenci Arrasatek EBA ligarako iguera fasea jokatu du. Iruñean jokatuako partiduan 48-70 irabazi zuten Iker Zubiriaren mutilek. Horrenbestez, hila-ren 29an (zapatua) ekingo dio Kenci Arrasatek iguera fasea jokatzeari.

GIMNASIA/BERGARA

Bihar, zapatua, Gipuzkoako Eskola Arteko Gimnasia Erritmiko Txapelketa jokatu da Bergarako Labegarietako kiroldegian, 17:00etan. Alebin, infantil, kadete eta gazte mailetakoko gimnastak izango dira lehian. Sarrera doakoa izango da, eta antolatzaileek dei egiten diete Debagoieneko zaleei kiroldegira hurreratzeko. Ibarreko hainbat gimnastak hartuko dute parte biharko saioan.

TRIALSINA/ARRASATE

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azken proba jokatu zen aurreko aste bukaeran Udalan. Han lortutako emaitzen laguntzarekin Iker Lezeta da Gipuzkoako txapeldun berria. Emakumezkoetan, Maitane Anduezak irabazi du; infantiletan, Patxi Cruz; eta alebinetan, Jon Areitio. Udalako proban 73 lagunek hartu zuten parte.

Ibarreko pilotaririk ez banakakoan

Iaz Elkorok eta Berraondok hartu zuten parte Eskuz Banakako Txapelketan

Debagoienak ez du pilotaririk izango martxoaren 28an hasiko den Eskuz Banakako Txapelketan. Iaz Aitor Elkorok eta Haritz Berraondok hartu zuten parte txapelketan. Hainbat arrazoirengatik, baina, ez bata ez besteak ez dute txapel garrantzitsuenaren lehian parte hartuko.

Binakako Txapelketako finala jokatu barik dagoen arren, asteartean aurkeztu zuten aurtengo Eskuz Banakako Txapelketa.

Hain zuzen, finalerdietako ligaxka da EPELEk aurkeztu zuen txapelketako berrikuntza nagusia.

Iaz, ibarreko bi pilotarik hartu zuten parte txapelketan; aurten, berriz, batek ere ez. Aitor Elkorok 1997an Arretxeren aurka jokatu zuen finalean zuen sasoiatik urrun dago. Eta nahiago izan du pilotari gazteei bide ematea. Haritz Berraondok orain dela bi urte bigarren mailako txapelduna izan zelako jokatu zuen iaz txapelketa. Ez zuen emaitza onik izan eta bigarren mailara bueltatu zen. Debagoienekoak faltan,

gainerako pilotarien jokoa ikusi behar.

KORRIKAREN ALDEKO PILOTA JAIALDIA
Gaur, 22:00etan, Korrikaren aldeko pilota partiduak jokatu dira Bergarako Udal Pilotalekuan. Binakako bi partiduk osatuko dute Korrikaren aldeko jaialdia: lehenengoan, Chafeek eta Eulatek Berraondoren eta Auxkinen aurka jokatu dute; eta bigarrenean, Titin III.ak eta Apeztegiak Xalaren eta Lasaren aurka.

O.E.



Aitor Elkorok ez du aurten Eskuz Banakako Txapelketa jokatu.

AZUL
de RIZOS
PELUQUEROS

- LASER BIDEZKO DEPILAZIOA
- EGUZKI DUTXA
- EDERTASUN KABINAK

Astelehenetik zapatua 09:30etatik 19:30etara
Zapatuan ere egun osoa zabalik!

Otalora Lizenziaduna 24 • ARRASATE • 943 79 83 66

Eta orain ...
ZELULITISari aurre egiteko tratamendu berria.

DERMAJET:
endomasajea eta ultrasoinuak tartekatuta, zelulitisari eta soberan dituzun gantzei aurre egiten dien metodo berria.



e-debagoiena

ETORKIZUNA HURBILTZEKO TE ACERCAMOS EL FUTURO

Orain dela urtebete...



Martxoaren 25ean, GOITB-n, *e-debagoienak* urtebetean egin duen ibilbidearen gaineko saioa (zuntz optikoa, KZ Guneak, Goiena.net, elkarrizketak...).

EZKONTZAK

Egubakoitza / 2003ko martxoaren 21a / GOIENKARIAren gehigarri berezia

**Bai,
nahi dut**
Iritsi da
ezkontzen
sasoia

A brand advertisement for Troko. It features two models in elegant dresses. The model on the left is wearing a long, multi-colored dress with horizontal stripes in shades of red, yellow, and brown. The model on the right is wearing a dark, sleeveless, form-fitting dress. The background is a blue wall with a decorative, patterned border at the top. The Troko logo is centered in the blue area, consisting of a stylized 'T' inside an oval with the word 'TROKO' written across it.

TROKO

Erdiko kalea 14 • 943 79 46 94
ARRASATE



*Esku onetan
zaude*

**BEROTZI
PELUQUERAS**

**D. Fleming 5
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 53 15**



MAYA


BERGARA
Irala z/g • 943 76 09 75
ARRASATE
Zarrugalde 10 • 943 79 29 09

■ EZKONTZETAKO GASTUAK

Ezkontzea gauza handia da; baita dirutan ere

AINTZANE IRIZAR

Egun polita, gogoangarria, askorendako bizitzako egunik ederrena da ezkontzako eguna. Baina gastu ugari ere ekartzen dizkio bikoteari ezkontzak. Ez da erraza batez bestekoa ateratzea, baina datu batzuk jakin ditugu, behintzat.

Esaera batek dio behin bakarrik ezkontzen dela, nahiz eta batzuk gehiagotan ezkondu; horregatik, egun gogoangarria behar du izan norberaren ezkontza egunak. Egun hori behar bezala prestatzeko lan handi eta luzea eskatzen du, eta gastuak ere ez dira txikiagoak izaten.

Luxuzkoa, apala, xumea, dotorea, familia artekoa, ponpoxoa... Era guztietako ezkontzak egiten dira. Baina, orokorrean, zenbat diru gastatzen dugu ezkontza egunean? Horixe jakin nahi izan dugu. Egia esan, ez da erraza jakitea; izan ere, ezkontza guztiak dira ezberdinak, eta prezioak ere, era guztietakoak topa ditzakegu. Dena dela, batez besteko prezio batzuk jakiten, behintzat, ahalegindu gara.

Kontsultatutako aditu gehienek esan digutenez, egun horretako prestaketan prezioa ez da faktorerik garrantzitsuen izaten erabakiak hartzerako orduan. Normala denez, ezkongaiendako garrantzitsuen da antolatutako guztia ondo ateratzea; horregatik,



Ezkonberriek berriro hartzen dute protagonismoa, bazkalostean tarta mozterako orduan.

nahiz eta gutxi gorabeherako aurrekontu bat izaten duten ezkongaiak, ez diete askorik erreparatzen prezioei.

INOIZ BAINO EDERRAGO EGOTEKO...

Diru dezente gastatu behar izaten dute ezkongaiak horretarako; eta, gauza gehienetan moduan,

emaztegaiak gastatzen du diru gehien honetan ere. Ezkondu baino pare bat hilabete lehenago hasten dira hainbat tratamendure-

Adituen arabera, ezkongaiak ez diete askorik erreparatzen prezioei

Ezkontza baino pare bat hilabete lehenago hasten dira edertasun zentroetara joaten

Emaztegaiak senargaiak baino diru gehiago gastatzen du estetika kontuetan

Ile apaindegian gutxienez 120 euro, eta gehienez, 270 gastatzen ditu emaztegaiak

kin: azaleko tratamenduak direla, solariuma dela, manikura dela... Azaleko tratamenduetan, gutxienez, 60 euro gastatzen ditu

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17
GASTEIZ

Tel./Faxa: 945 21 42 24

ZURE AMETSETAKO ETXEA!

- Besaulki eta sofa etzangarriak
- Besaulki altxagarriak
- Latexezko edo tempurrezko koltxoi anatomikoak
- Doitasunezko somierrak, elektrikoak eta eskuzkoak



Presioa kentzen duen XXI. mendeko atsedeen hartzeko sistema

emaztegi bakoitzak: aurpegiko larruzala garbitzen diote, hidratazio tratamendua eta, ezkontza egunean bertan, anpulu berezi bat ematen diote, makillajeak luzeago iraun dezan.

Bestalde, ia emakume guztiak depilatzen dira ezkontza egunerako; 30 bat euro gastatzen dituzte horretan: hankak, besazpiak, bekainak, eta abar depilatzen dituzte ezkontza baino egun batzuk lehenago.

Ezkontza egunean kolore polit bat izateko, berriz, solariumera joaten dira emakume asko; senargaiak, berriz, gutxi dira solariumera joaten direnak. Bakoitzaren azalaren arabera, solariumeko saio gehiago edo gutxiago behar izaten da; dena dela, gutxienez, hamar bat saio behar izaten dira. Batez beste 42 euro gastatu behar izaten dituzte solariumean.

Bestalde, badira manikura eta pedikura egiten dituzten emaztegiak ere. Gutxi gorabehera, 30 bat euro kostatzen zaie tratamendu horiek egitea.

Ile apaindegiko gastuak, bestalde, aurrekontuaren zati garrantzitsua betetzen du edertze alor honetan. Izan ere, ezkontza eguna baino hilabete lehenagotik, gutxi gorabehera, ile apaindegira joan eta hainbat proba egiten hasten dira emaztegiak. Orokorrean, bizpahiru aldiz joaten dira probak egitera. Gehienek mototsa egiten dute ezkontza egunerako; askok, gainera, ilea tindatzen dute. Gauzak horrela, gutxienez 120 bat euro eta gehienez 270 euro gastatzen dituzte emaztegiak ile apaindegian. Gizonezkoek, berriz, 20 bat euro besterik ez dute gastatzen.

EMAZTEGAIAREN BITXIAK

Soinekoaz aparte, bitxi dotoreak eramaten dituzte emaztegi gehienek. Belarritako eta lepoko xumeak boladan daude; hau da, aten-



GOIENKARIA

Argazki albumez garrantzi berezia dute, baina gero eta gehiagok bideoa ere egiten dute.

tzio handirik eman barik, emaztegiari dotoretasun ukitua ematen dioten bitxiak.

Belarritakoei dagokienez, gutxienez 55 euro eta gehienez 240 euro gastatzen dituzte. Lepokoa, berriz, 60 bat euro kostatzen da; kate eta zintzilikari xumea besterik ez dute eramaten emaztegi gehienek.

Azkenik, bikotearen ezkontza-eraztunak ditugu; horiek ere,

era eta prezio guztietakoak ditugu, baina, orokorrean, 130 bat euro gastatzen ditu bikote bakoitzak eraztunotan.

LOREAK, EZINBESTEKO OSAGAIK

Emaztegiaren lore sorta ia ezinbesteko osagaia da ezkontza baten. Soinekoaren eta emaztegiaren gustuen arabera asko aldatzen dira lore sortak; eta, jakina, baita prezioak ere. Bai-

na lorategiko gastuak ez dira hor amaitzen; izan ere, ezkongaien automobila eta eliza edo udaletxea ere apaindu behar izaten dira. Esan bezala, erabiltzen dituzten lore moten arabera asko aldatzen dira prezioak; hala ere, hona hemen aurrekontuak: gutxienez 450 bat euro eta gehienez, 600 bat euro gastatzen dituzte ezkongaiak loretan. Hala ere, lore mota bereziren batzuk erabili nahi izanez

gero, aurrekontua asko igo daiteke: 12.000 euro ingurura irits daiteke lorategiko gastua.

GONBIDAPENAK ETA OPARIK

Ezkontzara etorriko direnak gonbidatzeko gonbidapen orriak egiten dituzte ezkongai gehienek.

Horretarako, inprentaren batera jotzen dute. Gonbidapenetan prezioak ez dira askorik aldatzen. Gutxi gorabehera 150 bat

**Erabiltzen diren
lore moten
arabera asko
aldatzen dira
prezioak**

**Ezkontza-
eraztunetan eta
bitxietan 300 bat
euro gastatzen
dituzte**

**Argazkilariaren
gastuak 800
eta 1.000 euro
arteak
izaten dira**

**Bazkalosteko
dantzaldirako
taldeek 400 eta
500 euro artean
kobratzen dute**



Juan Manuel Berrueta
ARGAZKILARIA

Iturriotz Kalea 24 • Tel.: 943 79 19 71 • Mugikorra: 658 75 58 18 • ARRASATE
E-posta: juanma.bv@euskalnet.net



Depilazioa laserrarekin

*Martxoaren 14tik 21era, diagnostikoa eta
proba doan.*

Aukera ezin hobea



LILURA
EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7,1a
Tel.: 943 76 31 71
20570 BERGARA

euro kostatzen da 100 gonbidatu ingururendako gonbidapenak egitea.

Ezkontza egunean, bestalde, gonbidatu bakoitzari oparitxo bat egiteko ohitura dago hemengo ezkontzetan. Emakumei, ezkontzako orogarriritxo-ren bat edo bestelako opari bat ematen zaie: kandela bat, perfumatutako iruditxo bat, lore sikuak...

Gizonezkoei, berriz, ezkontza gehienetan, behintzat, purua ematen diete.

Emakumezkoen oparitxoaren kasuan, 250 bat euro kostatzen dira oparitxoak 100 gonbidatuko ezkontzen kasuan. Gizonezkoen opariek, berriz, 125 bat euro.

EZKONDU ETA BIDAIA JOAN

Eztei-bidaia izaten da ezkonberriek izaten duten beste gastu garrantzitsu bat. Dena dela, kontuan hartu behar da bikote asko bidaiak merkeago diren hilabeteetan ezkontzen direla, eta hori euren aldeko faktorea dela.

Hainbat bidaia agentzian esan digutenez, pare bat aste egiten dituzte oporretan bikote gehienek, eta gutxienez 1.500 euro eta gehienek ere 7.200 euro gastatzen dituzte euskal bikote ezkonberriek.

BAZKALOSTEAN, DANTZARA

Jatetxeko banketearen ostean dantzarako sasoi etortzen da. Gutxi izango dira dantzaldi bari-ko banketeak.

Ohikoena da berbena talde bat kontratatzea. Dena dela, *disc jockey*-ak ere boladan daude ezkontzetan.

Musika taldeei dagokienek, ere guztietako prezioak aurkitu ditzakegun arren, 400 eta 500 euro artean ordaindu behar izaten dira talde edo *disc jockey*-ak kontratatzearentan.



JUANMA ARGAZKI DENDA

Normalean, 50 bat argazkiko albuma egiten dute ezkontzaiek; 800 eta 1.000 euro artean ordaintzen diote argazkilariri.

EZKONGAIEN JANTZIAK

Ospakizuneko detaile guztiek dute garrantzia ezkontza baten, baina, bereziki, ezkongaien jantziek. Horregatik, eta jantzien materialak eta diseinuak bereziak izaten direlako, ezkontzako elementurik garestienetakoak izaten dira ezkongaien jantziak; batez ere, emaztegaiaren soinekoa.

Gutxienez 540 euro gastatzen dituzte emaztegaiaren soinekoan. Normalean 2.000 eurotik gorako soinekorik ez du erosten jendeak.

Gizonezkoen jantziak merkeagoak izaten dira; gutxienez 210 euro inguru gastatzen dituzte. Batez beste, baina, 480 bat euro gastatzen dituzte. Diru horrekin goitik behera jantzen dute senargaia.

JATETXEKO AURREKONTUA

Hauxe izaten da gastuen zerrendako garestiena. Dirutza handia gastatzen dute ezkontzaiek ospakizuneko bazkari edo afarian. Dena dela, gonbidatuek ematen dietenarekin gastuei aurre egiteko moduan geratzen dira.


Era guztietako menuak daude, apalenetik hasi eta sofistikatuenara, merkeenetik hasi eta garestienara. Jatetxeek, gainera, jakineko menu batzuk aurkezten dizkiete, normalean, ezkongai. Menuak merkeenak 54 bat euro balio izaten du; garestienaren preziorik, berriz, ez digute eman. Dena dela, orokorrean 66 bat euroko menuak aukeratzen dituzte ezkongai gehienek.

ARGAZKI ALBUMA ETA BIDEOA

Hemen ere, asko aldatzen dira aurrekontuak bikoteak nahi duenaren arabera. Hala ere, ezkongai gehienek zer nahi izaten duten eta zenbat gastatzen duten jakin nahi izan dugu, gure ibarreko hainbat argazkilariri galdetuta.

Normalean, 50 bat argazkiko albuma egiten dituzte ezkontzaiek. 800 eta 1.000 euro inguru gastatzen dituzte horrelako album bat egiten dutenek.

Bestalde, gero eta gehiago dira bideo erreportajeak ere egiten dituztenak. Ezkongaien %35 inguru dira, hain justu, egun horretako irudiak grabatzen dituztenak. Gutxi gorabehera, 700 bat euro gastatzen dituzte ezkontzaiek bideo horretan.



zure ezkontza egunean aukera ezazu leku atsegina

*BASTER-ALDE Jatetxea - Galartza auzoa • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 24 58*

■ JANTZIAK

Soineko xumeak eta zuriak dira nagusi gure inguruan

AINTZANE IRIZAR

Ezkontzarako arropa aukeratzeak hamaika burukomin sortzen dizkie ezkongaiari, baina baita gonbidatu askori ere. Edozelan ere, emazte-gaiaren soinekoak pizten du jakin-min eta ikusmin handien edozein ezkontzatan.

Dena dela, gizonen arroparekin hasiko dugu erreportajea. Oraindik ere bigarren mailan geratzen dira senargaiak eta haien trajeak gaur egungo ezkontzetan. Hala ere, gero eta garrantzi handiagoa ematen diote gizonen janzkerari bikoteek, baita senargaiak ere.

Bigarren mailan egon direnez, senargaien trajeek emazte-gaiaren soinekoak baino aldaketa eta garapen txikiagoa izan dute urtetan. Dena dela, adituen esanetan, azkeneko hiruzpalau urtetan bigarren maila hori alde batera utzi eta garrantzia hartzen hasi dira senargaien trajeak ere. Gero eta gehiago erreparatzen zaio senargaiaren janzkerari, eta horrexegatik, hain zuzen ere,



Ezkontzari ez ezik, gonbidatuek ere asko zaintzen dute euren janzkera.

GOIENKARIA

azkeneko urte hauetan aldaketa batzuk izan dira senargaien trajeetan.

Edozelan ere, adituen esanetan, euskaldun senargai nahiko tradizionala da, pixkanaka-pixkanaka gauzak aldatzen doazen arren: traje ilunak, alkandora argiak eta gorbata serioak osatzen dute gizonen janzkera ohikoena.

Hala ere, gero eta gehiago dira, esaterako, lebitaz ezkontzen direnak: orain dela gutxira arte, hiru botoidun jaka tradizionalarekin janzten ziren senargai ia guztiak. Bestalde, gorbatetan ere hainbat aldaketa izan dira, eta kolore pixka bat sartu dute; kolore apalak, nolana ere.

EMAZTEGAIK, DOTORE

Dotoretasunak izan beharko luke edozein emazte-gaiaren ezinbesteko ezaugarria (baita senargaiarena ere). Dotoretasun horretan, baina, estilo askotako soinekoak aurki ditzakegu: erromantikoak, klasikoak, modernoak...

Edozelan ere, garrantzi handia ematen dio soinekoari edozein emazte-gaiak. Horregatik, denborekin hasten dira dendarik dena soineko gustukoaren bila.

Badira urtebete lehenago soinekoaren bila hasten direnak ere.

GURE AMETSA JATETXEA



- Ezkontzatarako areto handi eta erosoak
- Aparkaleku pribatua handia
- Aperitiboendako terraza
- Sukaldaritza zaindua eta paregabea
- Aurrekontu guztietarako menuak

Leintz Gatzaga • Tel./Faxa: 943 71 49 52

Geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaio senargaiaren trajeari

Gauzak aldatzen ari diren arren, senargai euskalduna nahiko tradizionala da

Traje ilunak, alkandora argiak eta gorbata serioak dira ohikoenak



Estilo askotako soinekoak daude: erromantikoak, klasikoak, modernoak...

Soineko zuriak dira nagusi, baina gero eta kolore gehiago ikusten da gaur egun

Ezkontzetako gonbidatuek ere garrantzi handia ematen diote janzkerari

Horrek erakusten du, beste ezerk baino gehiago, zelako garrantzia duen egun berezi horretako jantziak ezkontzera doanarendako.

Gutxi gorabeherako ideia batekin joaten dira emaztegiak dendara, baina ideia bat, gutxienez, argi izaten dute: egun berezi horretan inoiz baino ederrago egotea da euren nahia. Horretarako, zelan ez, dendetako adituen aholkua eskatzea izaten da ohikoena.

Emaztegiak ere, senargaien moduan, nahiko tradizionalak dira gure inguruan. Gehienek kolore zuria aukeratzen dute. Hala ere, gero eta gehiago dira soinekoari kolore ukitu bat ematera ausartzen direnak. Soineko tradizionalak dira nagusi, baina modernitate kutsu batekin. Bes-

EMAKUMEZKOEN JOERA

Emaztegiaren soinekoei dagokionez, aukera zabala dago gaur egun. Hala ere, gehienek soineko zuria edo marfil kolorekoa aukeratzen dute. Gure inguruan nahiko tradizionalak gara, baina gero eta nabariagoak dira modernitate ukituak emaztegiaren soinekoetan. Adituen esanetan, gero eta kolore gehiago sartzen ari dira diseinatzaileak. Lazko denboraldian, esaterako, aldaketa nabarmena izan zen koloreei dagokionez; aurten, berriz, are eta nabarmenagoak dira kolorezko detaileak emaztegiaren soinekoetan. Soineko xumeak, diskretuak, dira nagusi gaur egun, apaingarri gutxikoak, baina, era berean, kolorearekin bizitasuna irabazten dutenak. Hori bai, lurrerainoko soineko luzeek jarraitzen dute boladan. Zer ez dagoen boladan? Harribitxi ugariz apaindutako soinekoak, atentzioa ematen dutenak, apaindura gehiegi dituztenak. Labur esanda, xumetasuna eta naturaltasuna da soinekoetan boladan dagoena.

GIZONEZKOEN JOERA

Azkeneko urteotan aldatzen doa senargaiaren ohiko janzkera. Pixkanaka-pixkanaka detaile modernoagoak gehitzen ari zaizkio betiko traje ilunari; gero eta gehiago dira, esaterako, lebita janzten duten senargaiak. Bestalde, gorbata ilun eta serioa alde batera ari da geratzen, eta kolore pixka bat sartzen hasi dira senargai ausartenak: arrosa edo hori apala, urdina... Trajeari dagokionez, oraindik ere kolore ilunak diren arren senargai gehienek aukeratzten dituztenak, uztailean eta abuztuan badira traje grisa edo marfil kolorekoa janztera ausartzen direnak ere. Dena dela, adituek esan digutenez, horrelako kasuak salbuespenak dira. Alkandorari dagokionez, berriz, kolore zuria edo marfil kolorea dira nagusi; horrela, emaztegiaren soinekoarekin bat egiten laguntzen duen elementu nagusia bilakatzen da alkandora. Oinetakoak, berriz, gutxi aldatu dira: zapata ilunak daude boladan, betiko antzera.

tetik, soineko xumeak, apalak eta diskretuak aukeratzen dituzte gehienek.

GONBIDATUAK ERE, DOTORE

Ezkongaien aparte, ezkontzara doazen gonbidatuek ere hamaika buruhauste izaten dituzte arropa aukeratzeko orduan.

Izan ere, ezkontzek garrantzia berezia dute gure gizartean; egun berezia izaten da, ez ezkongaiendako bakarrik, baita gonbidatuendako ere. Horrela, gizonzko gehientsuenak traje eta gorbatarekin joaten dira, nahiz eta informalago ere janzten diren bateren batzuk. Emakumezko gehienak, berriz, soinekoarekin edo prakadun trajearekin. Edozelan ere, ezkontza batera, dotore.

IKER

**SUKALDE
ETA BAINU
ALTZARIAK**

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42

ARRASATE

FAGOR



O

rain, zuen eztei-bidaia kontratatzean, ezkontzako lehen oparia jasotzeko aukera emango dizuegu

Laster eztei-bidaiaz bete-bete gozatzeko aukera izango duzue eta gure aldetik ahalegin guztiak egin nahi ditugu zuen bidaia ahaztezina izan dadin.

Karibia, Tailandia, USA, Europa, Afrika... Eroski Bidaiak-en jomugarik onenak, preziorik onenetan eta, jakina, kalitaterik onenarekin batera, zerbitzurik onenak

ere aurkituko dituzue gurean.

Baieztapen hori, Kalitate Turistikoaren Ziurtagiria eta ISO 9001:2000 Ziurtagiria eskuratu dituen Bidaia Agentzia bakarrak abala dezake.

Zatozte gure bulegoetako edozeinetara eta hori guztia egiaztatuko duzue bertan.

Zain gaukazue, eta bai horixe: zorianik handiena opa dizuegu!

Aukeratu gehien gustatzen zaizuen... eta ezabatu zuen zerrendatik!



Bidaia maleta, trolley-a eta nezeserra



20 piezatak kristaleria



6 hilabeteko finantzaketa, interesik gabe



30 piezatak portzelanazko baxera



30 piezatak altzairu herdoilezineko ontziteria

Viajes Eroski Bidaiak

Mucho más que buenos precios. Precio onak baino askoz ere gehiago

■ ILEA APAINTZEA

Mototsa, emaztegaien orrazkera ohikoena

AINTZANE IRIZAR

Soinekoarekin eta trajearekin batera, orrazkerak ere jantzi egiten ditu, zelanbait, ezkongaiak. Emaztegaiaren orrazkerak garrantzi berezia hartzen du, gizonezko gehienek ile motza izaten dute-eta. Mototsa da boladan dagoen orrazkera.

Soinekoa aukeratu ondoren, orrazkerarekin pentsatzen has-teko ordua heltzen zaie ezkongai- emaztegaiei, batez ere. Ezkontza baino hilabete lehenago, gutxi gorabehera, ile apaindegira joan eta zelan orraztu pentsatzen hasten dira.

Orrazkera kontuetan gauza bat, behintzat, argi dago: mototsak daude boladan. Emaztegai gehienek ile guztia atzean batzen dute, motots baten. Eta, jakina,

ile luzea izan behar horretarako. Oso gutxi dira, nahiz eta mototsik ez egin, ile motzarekin ezkontzen diren emakumeak. Hori bakoitzaren estiloaren arabera-koa izaten da, baina gehienek lagatzen dute ile luzea. Ilea apaintzaile gehienek, gainera, aholku horixe ematen diete, ilea luze lagatzeko, alegia. Izan ere, ile luzeak aukera gehiago ematen ditu hainbat orrazkera egiteko.

SOINEKOAREN ARABERAKO ORRAZKERA
Esan bezala, ezkontza eguna baino hilabete lehenago joaten dira gehienak ile apaindegira. Han lehendabiziko probak egiten hasten dira. Normalean, bizpahiru proba egiten dituzte ezkontza baino lehen.


Ile apaintzaileari aholkua eskatu, soinekoarekin zein orrazkera doan ondoen ikusi, ilerako apaingarriak aukeratu, zelako kolorea emango duen, mototsa gorago edo beherago jarri... Ordu



Senargai gehienek ohiko orrazkera eramaten dute; emaztegaiek, berriz, mototsa hainbat apaingarriekin.



Kupoi hau aurkeztuz gero
%10eko deskontua ezkontza
gonbidapen eta oparietan
Maiatzaren 31ra arte!



**PAPER DENDA
J. URIARTE.**

Paregabeko egunaren oroigarria

*GONBIDAPENEI eta EZKONTZA OROIGARRIEI
dotoretasun ukitua ematen diegu,
betiere, zuen ILUSIOAREN
kutsuarekin.*



Dei egiguzu edo bisita gaitzazu konpromiso barik. Gustura hartuko zaitugu, baita zapatu arratsaldeetan ere.

Ferrerias 32. 20500 Arrasate • Tel.: 943 770 380 • Faxe: 943 797 006. • posta-e:juriarte@teleline.es

asko behar izaten dituzte emaztegaiek orrazkerarik egokiena aukeratzeko.

Boladan dagoen edo ez alde batera utzita, garrantzitsuena da norberaren estiloarekin eta aukeratutako soinekoarekin bat etortzea emaztegaia orrazkera. Horixe izaten da, normalean, orrazkera aukeratzeko gakoa. Izan ere, ez da gauza bera soineko erromantiko bat, klasiko bat edo moderno bat izatea. Bestalde, soinekoaren koloreak ere markatzen du, zelanbait, orrazkerak eta ileko apaindurek zelakoak behar duten izan.

GIZONEZKOEK, ERRAZAGO

Senargaiek ez dute emaztegaiek beste joan-etorri egiten ile apaindegira. Errazago aukeratzeko orrazkera, aukera handirik ere ez dute-eta izaten. Izan ere, ile motza izaten dute gehienek, eta gutxi dira atentzioa emateko moduko orrazkera egitera ausartzen direnak.

Gizonezkoen kasuan ere, arroparekin bat datorren orrazkera aukeratu behar izaten da. Gainera, emaztegaia orrazkera ere markatzen ditu senargaien janz-

kera eta orrazkera. Normalean, astebete lehenago ilea moztu, eta ezkontzako egunean bertan orraztera joaten dira ile apaindegira.

Gehienek orrazkera arrunt samarrak egiten dituzten arren, azkenaldian gero eta gehiago dira ileak puntan jartzera, ile-gogortzailearekin orrazkera informalak egitera edo ilea nahastuta eramatera ausartzen direnak.

Dena dela, aukera horiek nahiko mugatuta daude; izan ere, esan bezala, emaztegaia orrazkera bat etorri behar du senargaiarekin, eta horrexek markatzen du gizona orrazkera.

GONBIDATUEK ERE, MOTOTSA

Aspalditik dago boladan mototsa, esan bezala; baina orain dela urte batzuk arte emaztegaiek bakarrik egiten zuen. Gaur egun, berriz, ezkontzetara joaten diren emakumezko gonbidatu askok eta askok mototsa aukeratzeko egun horretarako.

Hala ere, emaztegaia baina motots informalagoak eta orjinalagoak izaten dira gonbidatuenak, janzkerak ere horretarako aukera zabalagoa lagatzen duelako.



MAKILLAJEA, XUMEA

Atzean geratu dira garai bateko makillaje deigarriak. Adituen esanetan, makillaje xumeak dira nagusi gaur egun: soilak, baina era berean, igar dadila pixka bat makillatuta dagoela. Kolore leunak, kontraste handi barikoak, erabiltzen dituzte.

Hori bai, orrazkerarekin gertatzen den moduan, soinekoaren estiloak, koloreek eta detaileek garrantzi handia dute makillatzeko era zehazterako orduan.

Makillatzeko bi aukera daude: bata, ile apaindegian bertan makillatzea; eta, bestea, edertasun zentro batera jotzea. Ite apaindegi askotan eskaintzen dute makillatzeko zerbitzua, eta emaztegaiek askok nahi izaten dute orraztu eta makillatu toki berean egitea. Beste askok, berriz, edertasun zentro espezializatua aukeratzeko horretarako.

Kasu horretan ere, gizonezkoek ez dute hain argi izaten makillatzearen kontua. Dena dela, gaur egun, senargai gehienak makillatzen dira. Hori bai, inork ez igartzeko moduan. Senargai gehienak ile apaindegian bertan makillatzen dira; izan ere, kolorea bakarrik ematen dute, eta ez da emaztegaia makillatzea bezain konplexua izaten.

SOINEKOAREKIN BAT EGINEZ

Ileko osagarriek lagundu egiten dute soinekoak eta orrazkerak bat egin dezaten.

Ezkontza gehienak udaberri inguruan izanda, gainera, lore itxurako apaingarriek hartzen dute protagonismoa. Emaztegaiek askok soinekoarekin batera aukeratzeko eta erosten dituzten apaingarriak. Beste batzuek, ordea, nahiago izaten dute kontu hori ile apaintzailearen esku uztea, edo haien aholkua-ri jarraituz aukeratzeko apaingarriok.

Azkenaldian boladan jartzen ari diren apaingarriak lore naturalak dira; hau da, sikatutako benetako loreak. Ukitu erromantikoa ematen diote emaztegaia; baita naturaltasuna ere.

Bestelako osagarriak dagokienez, lepokoa ia-ia ezinbestekoa da emaztegaia batendako. Eta, zelan ez, belarritakoak, xumeak horiek ere. Dotoreak behar dute izan, baina atentziorik ez dezatela dei.



Orazkera kontuetan gauza bat, behintzat, argi dago: mototsak daude boladan

Garrantzitsuena da soinekoarekin bat datorren orrazkera aukeratzeko



Momentu eder guztietan



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25

Kale Barria 18 • OÑATI • 943 71 60 74

■ JATETXEA

Lehenengo lana: jatetxea hartzea

AINTZANE IRIZAR

Ezkontza prestatzerakoan, normalean, ezkongaiak egiten duten lehenabiziko gauza izaten da jatetxea aukeratzea eta tokia hartzea; izan ere, oso zaila izaten da norberak nahi duen egunean eta jatetxean tokia izatea.

Udaberria izaten da bikote gehienek ezkontzeko aukeratzen duten urte sasoi. Horren arrazoi nagusia eguraldia izango da, segurua, baina ohitura kontuek ere izango dute eraginik.

Kontuak kontu, bikote gehientsuenak ezkontzen dira udaberrian, eta urteko sasoi horretan gure inguruko jatetxeetan ezkontzako banketea egiteko tokia topatzea lan zaila izaten da, benetan,

ezkongaiendako, nahiz eta jate-txe ugari ditugun. Gure ibarreko hainbat jatetxetan urtebete edo urte eta erdiko aurrerapenarekin hartzen dute tokia bikote askok eta askok, jatetxeetako arduradunen esanetan.

Urtebete edo urte eta erdiko aurrerapenarekin hartu behar da tokia jatetxean

Banketearen ostean ez da falta izaten musika talde edo 'disc-jockey'-rik

HAINBAT MENU AUKERAN

Behin jatetxea aukeratuta, menua aukeratzea izaten da hurrengo pausoa.

Normalean, jatetxeetako arduradunek hainbat menu izaten dituzte aukeran. Hona hemen ezkontza-bankete baterako proposamentxoak: hasteko, urdaiaz-piko eta solomo iberikoak, Landetako foiea, bieira beteak labean, ondoak hostorearekin, langostinoak eta almejak; horren ondoren, limoizko sorbetea cava erara; gainean, legatza mariskoz beteta saltsa amerikarrarekin eta solomilloa plantxan. Postrerako, berriz, eztei-tarta izozkiarekin. Eta, zelan ez, kafea, likoreak, cava eta ardoak.

JANA ETA EDANA JAISTEKO, DANTZARA!

Hori guztia jan eta edan ondoren, gorputza pixka bat mugitzea ez da batere gaizki etortzen. Gutxi izango dira dantzaldi bariko



GOIENKARIA

Gustu guztietarako menuak izaten dituzte aukeran jatetxeek.

ezkontzak. Ia-ia ezinbestekoa da bazkalostea animatzeko musika talde on bat.

Dena dela, dantza taldeak kontratatzen jarraitzen duten arren, *disc-jockey*-ak edo animatzaileak

ere boladan daude. Orain dela lauzpabost urte hasi ziren Gipuzkoan lehenengo DJak ezkontzei musika jartzen, eta geroago eta gehiagok aukeratzen dituzte animatzaileak ezkontzetan.

Urrezko eta zilarrezko ezkontza-horniak



Diseinuzko ezkontza-eraztun pertsonalizatuak



IRALA
BITXITEGIA

Olarte, 15 • ARRASATE
Tel.: 943 79 36 47

■ EZTEI-BIDAIA EGITEKO AUKERAK

Bi aste, milaka leku ezberdin

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gero eta jende gehiago ezkontzen da gure eskualdean. Zeremonia amaitu ondoren, bi edo hiru asteko bidaia egin ohi dute bikoteek. Orain dela berrogeita hamar urtetik gaur egunera, gauzak asko aldatu dira, eta eztei-bidaia da horietako bat.

Eztei-bidaiak ezkontzen ondoren egiten diren errituak direla esan daiteke. Aspalditik egiten dira, nahiz eta azken urteotan jomugak desberdinak izaten ari diren.

Gaur egun, eskaintza zabala dago ezkonberriendako. Hala ere, Arrasateko Eroski Bidaietako langile Marisa Untzuetak esan digunez, bikote bakoitzak duen aurrekontuaren araberakoak izaten dira aukerak. "Esaterako,

itsas bidaia bat egiteak asko garestitzen du bidaia", azaldu digu Marisak.

Jendeak lasai egoteko aprobetxatzen ditu bizpahiru asteok, lasai egon eta leku berriak ezagutzeko. Hondartzetako hondar


Geroz eta bikote gehiago joaten dira eztei-bidaian Polinesiarara edo Bazko uhartera

Zeelanda Berria autokarabanaz ezagutzea ezohiko eztei-bidaia izango litzateke

zurian etzan eta eguzkia patxadan hartzea izaten da askoren asmoa, eta horretarako, Kuba, Errepublikak Dominikarra eta horrelako lekuak aukeratzen dituzte. Hala ere, Polinesia, Australia eta Costa Rica jomuga interesgarriak direla esan digu Marisak.

Ezkonberriek duten beste aukera bat, lehendabizi turismo egitea, eta ondoren, atsedean hartzea izaten da. Esate baterako, Amerikako Estatu Batuak bisitatu ondoren, Cancunera eguzki bila jende asko joaten dela esan digute Halcon Bidaietako langileek: "Mexiko aldera bidaiatzeak eguzki bila joatea, maien kultura ezagutzea eta herrialdea bera aurkitzea dakartza", gaineratu dute.

Australiara eta Bora-Borara (Polinesia frantsesa) joateko geroz eta eskari gehiago jasotzen dituzte Halcon Bidaietan, eta ohiko leku bilakatzen ari direla esan digute. Hala ere, ezohiko moduan



GOIENKARIA

Hondar zurian etzan eta eguzkia patxadan hartzea izaten da askoren asmoa.

leku interesgarriren bat bisitatzeko gomendioa eskatu diegu, eta hau izan da agentziako langileen erantzuna: Zeelanda Berrian autokarabanaz ibili, eta hango paisaia eta kultura ezagutu.

Hortaz, aurrekontuaren arabera, oso leku ezberdinen artean egingo dute aukera ezkonberriek, eta egun ahaztezinak pasatzeko aukera izango dute. Batera zein bestera joan.

Arrasateko TODO MUEBLE Kabia



Zatoz TodoMueble Kabiara eta...

lasai egingo duzu lo.

Arrasateko **TODO MUEBLE KABIA**n logela aurrerakoi eta erosonez gain, gure baldintza ekonomikoek benetan ondo lo egiten utziko dizute, 48 hilabetean, inolako interes barik.

Zatoz **TodoMueble Kabiara** eta egizu lo lasai.

TRIKIMAILU BARIK BARIK

Ez ahaztu, gure BALDINTZA BERRIEK ematen duten lasaitasunarekin:

- 6 hilabetean, deskontuarekin, eskura ordaintzea izango balitz bezala.
- **4 urtean**, interes barik.

Beste inon ez duzu Arrasateko **TODOMUEBLE Kabiara** bezain ondo lo egingo.

Ordutegia: 10:15etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara
Zapatuak barne.

TODO MUEBLE Kabia

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel.: 943 79 27 70 • ARRASATE

■ ARGAZKIAK ETA BIDEOAK

Argazki albuma, egun berezi

AINTZANE IRIZAR

Ezkontza bezalako egun berezi batek ezinbestekoak ditu argazkiak, betiko oroitzapena utziko dizkiguten argazkiak. Hala, lan hori behar den moduan egiteko argazki profesionalen zerbitzuak kontratatzen dituzte ezkongaiak.

Behin jabetxea aukeratu eta tokia hartuta, argazkilariarekin egotea izaten da ezkongaiak eman beharreko hurrengo urratsa.

Gutxi gorabehera, urtebete lehenago kontratatzen dute argazkilaria.

Batez beste, 50 bat argazki osatutako albumak egiten dituzte ezkongaiak. Normalean, ezkontzako egunean bertan ateratzen dituzte argazkiok, ezkongaiak ezer berezirik egin nahi ez badute, behinik behin. Izan ere, gero eta gehiago dira betiko argazki klasikoetatik haratago joaten diren bikoteak: industrialdeetan, hondartzan, mendian, dendetako erakuslehoiak ikusten... argazkiak ateratzen dituzten bikoteak ere badira.

Dena dela, nahiko klasikoak gara debagoiendarrok argazkiak ateratzeko orduan, eta betiko edo ohiko argazkiak ateratzen dituzte gehienek. %30en batek, berriz, bideo erreportajeak ere egiten ditu.



KINU ARGAZKI DENDA

NEKANE ETA MIKEL / BERGARA

Iaz ezkondu ziren Nekane Gabilondo eta Mikel Leturia bergararrak. Ekainaren 22an, hain zuzen ere, ezkondu ziren, Bergarako udaletxean. Bergarako Bandako eta Orkestrako musikarien emanaldia izan zuten ezkontzan; handik irten, eta hantxe zeuden Moises Azpiazu taldeko dantzariak, bikotea zoriondu eta haiei dantza egiteko gertu. Baita Jarduneko trikitilariak ere. Azken haiekin, gainera, kalejiran ibili ziren ezkonberriak.

Ezkondu eta egun batzuetara, eztei-bidaian joan ziren Mikel eta Nekane, Austriara.



JUANMA ARGAZKI DENDA

CARLOS ETA MARGA / ARRASATE

Arrasateko parrokian ezkondu ziren orain dela ia hiru urte Carlos eta Marga. Egundako oso oroitzapen polita gordetzen du bikoteak, eta argazkiak ere, benetan gogoangarriak atera zituzten. Hemen ikusten dugun hau Debako hondartzan atera zuten, ezkontza baino egun batzuk lehenago. Ezkontza eguneko argazkiez aparte, bestelakoak ere atera nahi izan zituzten. Gero eta gehiago dira ohiko argazkiez gain zerbait orijinala eta ezberdina nahi izaten dutenak. Gainera, hondartza oso toki berezia eta gustukoa izaten da era horretako argazkiak atera nahi dituzten bikoteendako.



Zure egun berezia

- Argitasuna larruazalean
- Beltzaran kolore perfektua
- Esku liluragarriak

Norberaren beharrei edo ezaugarrirei egokitutako sustapenak



LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7,1a
Tel.: 943 76 31 71
20570 BERGARA



AMAGARA

ESTETIKA ZENTRUA

Erdiko Kale 54 behea
Tel.: 943 79 09 09
20500 ARRASATE

bateko oroitzapen bilduma



JUANMA ARGAZKI DENDA

JON ETA ALAITZ / ARRASATE

Alaitz Abarrategi eta Jon Ozaeta 2001eko azaroan ezkondu Aziren, Arrasateko udaletxean. Goiko argazkia Arrasaten hain ezaguna den Monterron parkean atera zuten, bizikleta eta guzti. Jonen anaia Amsterdamen bizi da, eta handik ekarritakoa da argazkiko bizikleta, Jonen iritziz, enkantu berezia duena. Eztei-bidaian Kubara joan ziren Jon eta Alaitz; hiru aste egin zituzten hantxe, eta bidaiak zoragarria izan zela kontatu digute.



JUANMA ARGAZKI DENDA

MAIDER ETA IGOR / ARRASATE

Joan den otsailaren 15ean ezkondu ziren Maider Larrañaga Jeta Igor Ezpeleta mondragoetarrak. Bedoñan ezkondu ziren, eta hantxe atera zituzten hainbat argazki; goian, esaterako, Maiderren senitartekoei Bedoñan duten baserri baten ateratako argazkietako bat ikusten dugu. Ezkondu eta gero, hiru asteko bidaiak egin zuen bikote horrek; New Yorken egon ziren lehenengo; handik Coloradora joan ziren eskiatzera; eta azkenik, Mexikoko hondartzetan pasatu zituzten egun batzuk.



KIRIU ARGAZKI DENDA

MIREN ETA IÑIGO / BERGARA

Miren Amasorrain antzuolarra eta Iñigo Igartza bergararra Mirailaren 21ean ezkondu ziren, Uzarragan. Ezkonberriek kontatu digutenez, oso egun polita izan zen, oso ondo joan zitzaie ezkontza egunean; aurretik egin beharreko prestaketa lanak eta horretan gastatu beharreko dirutza izugarriak ei dira, baina merezi duela esan digute. Eztei-bidaian Costa Rican egon ziren. Hemezortzi egun egin zituzten hantxe, auto bat errentan hartu eta herrialdea ezagutzen.



leku eta egun ahaztezinak



**Etxe
Aundi**

Jatetxea-Hotela**

Torre Auzo, 9
OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56

120 eta 250
gonbidatuendako
jangelak ditugu.

■ LEHENGO EZKONTZAK

Gu ezkondu ginenean...

AINTZANE IRIZAR

Asko aldatu dira gizarteko ohiturak, azkeneko mende honetan, batez ere; baina ezkontzarekin lotutako ohiturak ere. Gaur egungo ezkontzez gainera, antzina zelako ospakizunak egiten zituzten ere jakin nahi izan dugu.

Denborarekin, ezkontzarekin lotutako hainbat ohitura galdu egin dira. Horiek gogoratu nahi izan ditugu guk, eta gauza bitxiak jakin ditugu, gainera.

Egia esan, bikoteek elkar eza-gutzeko erak ere asko aldatu dira garai batetik hona. Orduan, erromerietan ezagutzen zuten elkar eta harremanetan hasi.

Emaztegiaren janzkerak ere asko aldatu dira. Soineko beltzarekin, mantilarekin, elizako liburuarekin, arrosarioarekin eta lore sortarekin joaten zen ezkontzera.

Elizkizuna bera apalagoa izaten zen; ez zen abesbatzarik ego-

ten, ezta bestelako musikarik ere. Gainera, normalean, ezkongaien gurasoak ez ziren elizkizunera joaten; ezkongaien anai-arrebak izaten ziren aitapontekoa eta amapontekoa. Benetan bitxiak iruditu zaizkigu garai bateko ohitura haiek.

Bestalde, arreoaren ohitura ere galdu egin da denborarekin. Garai baten, bikotekide bakoitzak etxerako hainbat gauza eramaten zituen etxe berrira: ohea, izarak, sukaldarako lapiko, ontzi eta bestelakoak... Edozein etxetan beharrezko ziren gauzak, azken baten. Horiek guztiak gurdian eramaten zituzten batetik bestera ezkontzaren aurreko egunetan. Nahikoa lan izaten zuten ezkongaien haiek guztiak garraiatu eta zegozkien tokietan jartzen.

Denborarekin asko aldatu ez dena da ezkontzako banketerako gonbidatu kopurua; antzina ere ohikoa zen ehunetik gora lagun gonbidatzea ezkontzara. Orduan, baina, banketea ez zen jatetxetan egiten; izan ere, baserritarren ohitura zen txahala eta oiloak hil eta baserrian bertan ospatzea ezkontza.



Garai baten ere familia handia elkartzen zen ezkontza osteko bazkarian, baserrian.

TOMASA BEREZIARTUA ETA JUAN KRUZ AGIRREZABAL

“Baserrian bertan egin genuen ezkondu ondorengo bazkaria”

Laz ospatu zituzten urrezko ezteiak Juan Kruz eta Tomasa antzuolarrek. Gozo eta irribarretsu hartu gaituzte Laskuraintxiki baserrian. Gozotasunez eta irribarretsu, halaxe gogoratzen du euren ezkontzako eguna ere bikote horrek.

Noiz ezkondu zineten?

Apirilean etorriko dira 51 urte ezkondu ginela. Apirilaren 19an, hain zuzen ere, ezkondu ginen.

Non ezkondu zineten?

Antzuolako parrokian; ni (Juan Kruz) Laskuraintxikikoa naiz eta senide eta lagunekin batera Torrera joan nintzen Tomasaren bila, bidean etxategoak botaz. Handik, Antzuolako parrokia joan ginen denok ezkontza elizkizunera.

Banketerik egin zenuten?

Bai; hemen, Laskuraintxikin egin genuen. 160 bat gonbidatu genituen, senide, lagun eta auzotarrak denak. Aurreko egunean txahala hil genuen, eta lagunek opari egindako oiloak ere bagenituen bazkarirako. Orduan ez zegoen bazkaria jatean egiteko ohiturarik; handik gutxira sortu zen ohitura hori, baina gure garaian baserritarrok baserrian bertan ospatzen genuen ezkontzako bazkaria. Sukaldariak kontratatatu genituen; platerak eta mahairako behar genuen materiala,



Tomasa eta Juan Kruz, Laskuraintxiki aurrean.

“Baserrikoak izanik, bidaiara joan baino lehen baserriko lanak egin genituen”

berriz, Bergarako Etxenagusin errentan hartu genuen, eta etxean bertan egin genuen banketea. Egia esan, izugarritzko lana eman zigun horrek. Berrito horrelakorik ez genuke egingo, behintzat, ez horixe!

Eztei-bidaiarik egin zenu-ten?

Bai, baina bidaiara joan baino lehen baserriko lanak egin behar izan genituen; badakizu

“Eztei-bidaian Donostiara joan ginen, trenez, lehengusu batzuen etxera”

zelan izaten diren baserritarren kontuak! Belar-metak eginda genituen, eta hura jaso beharra zegoen. Gero, Donostiara joan ginen; trenez egin genuen bidaia. Han lehengusu batzuen etxean egon ginen. Ez dakit, baina astebete-edo pasatuko genuen han. Orduan boladan zegoen Donostiara eta beste hiriburu batzuetara joatea ezkontza osteko bidaian.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ESKLUSIBAN GIZONEZKOENDAKO:

SENARGAIK,

AITABITXIAK ETA

SENITARTEKOAK.

CORTE BLANCO

TRIUNFO 3 • DONOSTIA • TEL.: 943 46 40 91



oinetakoak

Olarte 6 • ARRASATE
943 77 10 16

Dotorezia oinetan



Ormazabal

BARNE ARKITEKTURA

Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel: 943 71 19 81
Fax: 943 71 19 82
GIPUZKOA



* Zure erosketak sei hilabetean ordaintzeko aukera, interes barik

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko martxoaren 21a

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren
21etik 28ra

Badakin, azkenengo
traguak kalte egin
eta **txahala**
bota najonan.

Aspaldixan
baraurik najaok, eta
erruberan
besterik ez
juat egitten.

Ikusten dittuten
neska danak edarrak
jaozak; **hau altan**
egotiau ez dok
bape ona.

Hori ez dok
hire arduria, hortaz,
heure fraketan
sartu!

Neska bat
inguruan ikusi orduko,
hor dok gure **katarra.**


Gaur gurian
muturrak
egongo dittun
bazkaltzeko!

Hori mutillori **idisko**
ederra bai, baiña adurti
galanta be bai; joan dedilla
Otxandixora pikutara!

Gizurra dirudi, baiña
frakak erosteko
kriston arazuak eukitzen
jittun hain **txangamehia**
izanda.

Hor jabik hori
sasilustrauori
dakixen moduan berba
egitten, eta **tautik be**
ez jakik.

Lehenengo farola hustu juau,
bigarrenari be gutxi falta
jakok eta holako martxan
hirugarrenak **perra hots**
edarra eruan
bihar jok.



'BERBETA BERUA'

Deba ibarreko Badihardugu euskara elkarteko Alberto Telleriak eta beste kide batzuek egindako liburua da. Joan den zapatuan aurkeztu zuten, Elgetan.

Hirurogei bat orriko liburuxka koloretsua da, eta ez bakarrik Roberto Landaren marrazki txukunengatik, baizik eta euskararen berotasuna hurreratzen digulako. Berotasun hori lagun arteko, kaleko euskararena da. Horixe da euskarak oraindik irabazteke duen eremuetako bat. Egileek diotenez, euskara jasoan ondo berba egiten ikasi dugu, baina "hori super-guaia da", "ez zaitez halako-plasta izan"... eta antzekoetara jotzen dugu. Eta kaleko euskararen beroa?

Eguneroko berbetaren gatza eta berakatza

'Goienka2a' ataleko azal honetan irakurriko dituzun berba eta esamolde batzuk bitxiak egiten zaizkizula? Are gehiago, ez duzula piperrik ulertzen? Bada, euskaraz gozatzeko aukera ari zara galtzen...

EUSKARA/ 'BERBETA BERUA' LIBURUA, EUSKARAREN GATZA ETA BERAKATZA BERRESKURATZEKO

Amama daukagu liburu honekin...

'BERBETA BERUA' LIBURUAK LAGUN ARTEKO GIROAN EUSKARARI TXINPARTAK ATERATZEKO HAINBAT ESAMOLDE BATZEN DITU

LEIRE KORTABARRIA

Superguaia da, "hori bai plastia!", "jode, egindako kañua el no va más izan da", "gilipollas bat da"... Takianpotian entzun eta erabiltzen ditugu euskaldunok berba horiek eta antzekoak. Gazte gehienon ama-hizkuntza euskara izan arren, esparru guztietan ez dakigu ondo erabiltzen.

Gaur egungo euskarak erregistro bat du oraindik irabazteko: lagun arteko berbetea, hain zuzen ere. Hor gaztelania izaten da nagusi ume, gazte eta helduon ahoan gauzak modu informal edo kalekoan azaldu gura ditugunean. Esparru hori euskararendako irabazten joateko asmoz aurkeztu du Badihardugu ibarreko euskara elkarteak *Berbete berua* liburuxka. Elkarteko kide Alberto Telleria filologo eibartarrak idatzi du, beste kide batzuen lagun-tzarekin.

Telleriak dioenez, euskarak zientziaren, teknologiaren... esparruak irabazten joan da, eta hiztun kopurua ere hazi egin da. Baina "ez gara gauza gure lagunarekin zirriak egiten dihardugunean euskaraz gauza goxoak esateko; autoan gidatzen joan eta haserretuz gero, haserre hori euskaraz adierazteko; edo lagunekin berba egiten gabiltzanean zenbait gauza euskaraz esateko: *gilipollas, montar un pollo, tío bueno, estar al loro...*, adibidez".

GAIAREN ARABERA

Egoera horretaz jabetuta, Badihardugu Deba ibarreko euskara elkarteak lantalde bat antolatzen zuen, orain esku artean dugun liburuxka hori izango zena prestatzeko. Sei arlo bereiztu dituzte egileek, gaiaren arabera; bakoitzean hainbat berba eta esa-



Gazteei zuzenduta dago liburua, batik bat, baina edozein euskaldunendako modukoa da.

LEIRE KORTABARRIA

"Ez gara gauza gure lagunari euskaraz gauza goxoak esateko, haserrea adierazteko..."

molde proposatzen dituzte, gehienendako baliokideekin eta guzti; gainera, adibide praktikoak eta itzulpena ematen dizkigute. Bukaeran, berbon gaztelaniatik euskararako hiztegitxo dugu.

"Baserriko tradizioetik abiatzea arriskutsua da, gaurko gizartea hiritarra delako"

Esaldion jatorriari dagokionez, gehienak Debarrokoak dira, arrok 17 herrietako kideek hartu dute eta parte liburuan. Hori dela eta, batez ere, geure inguruko berbak aurkituko ditugu.

SEXUA ETA TABERNA GIROA

"Tradizioetik abiatu gara liburua egiterakoan, eta horrek arriskua dakar, gure inguruan tradizioa baserri girokoa delako eta gaurko gizartea, berriz, hiritarra". Hori dela eta, egileek hainbat esamolde asmatu ere egin behar izan dituzte, baina gutxienak izan dira. Gehienbat, sexuaren gaineko eta taberna giroko berbak asmatu dituzte: "Edozelan ere, oraindik asmatu beharko da *farlopa, joko* eta horrelakoak euskaraz esateko eta ez gaztelaniatik hartzeko. Ez da erronka txikia!", diote liburua egileek.

ALBERTO TELLERIA / LIBURUAREN EGILEA

"Errealitate berrirako, berba berriak asmatu behar"

Alberto Telleria filologo eta Badiharduguko kideak idatzi du *Berbete berua*, Juan Martin Elexpuru eta Nekane San Migelekin. Edozein liburu dendatan erosi ahal izango dugu, hamar eurotan.

Zelan aurkitu dituzue liburu-ko esaerok?

Gehienak ahozkotik jasotakoak dira, eta ezin esan bakarrik Deba ibarrekoak direnik. Salbuespenak salbuespen, asko beste zenbait tokitan ere erabiltzen

dira edo ezagunak dira. Liburuetatik ere jaso ditugu. Asmatu, oso gutxi asmatu ditugu.

Esaten da euskara hizkuntza 'garbia' dela, eta biraoak, berba despektiboak... gutxi daudela. Egi ala mito?

Akaso aspaldian horrela izango zen, baina nire aldamenean jende euskalduna haserretzen denean, handiak eta beroak botatzen ditu.

Euskarak zeren behar handiago du: kaleko berba gehiagorena, ala daudenak gehiago hedatzearena?

Ingurua aldatu egiten den gauza bat da, eta errealitate berri horretarako berba berriak asmatu beharko lirarteke. Hala ere, daudenak hobeto ezagutzea ere ez letorke gaizki, zerbaitetik haste aldera.

Zer deritzozu gaztelaniatik edo frantsesetik berbak mailerik hartzeari?

Asmatzeko gauza ez garenean, berba horiek nonbaitetik hartu behar. Dena dela, 'euskal bertsoan' erabili beharko genituzke.



Alberto Telleria.

Hainbat esamolde

Sei kapitulutan banatuta daude hitzok: *Despektiboak, Haserrearen adierazleak, Ezaugarri fisikoak, Taberna girokoak, Amodioa eta sexua, eta Bestelakoak*. Hona hemen adibide batzuk:

• **"Edarra arraiña eginda jaok hori!"** Arraiña, ganaua: gaiztokeriarako joera duen pertsona (zorro, bicho, canalla).

• **"Hori erlamiñuori aldemenian eukitta, kaja bat aspirina gutxi dok"**. Erlamiñua, mandaeulixa: pertsona astuna (plasta, coñazo, palizas).

• **"Juatia jakak pikulittara!"**. Pikulittara joan/bialdu; haixia hartzera bialdu; Otxandixora pikutara bialdu: gauza edo pertsonaren bat zakar arbuia (mandar a la mierda).

• **"Argi ibilli tabernarixekin eskatzeko orduan, Anboto txapelakin jaok-eta"**. Anboto txapelakin egon, betoskua euki: haserre aurpegi eduki (tener careto de cabreado/a).

• **"Harri batekin gaztaian jo ezker, lurrera joiak"**. Gaztaia: burua (melón).

• **"Txorixo mutur batekin apurtu giñuan baraua"**. Baraua apurtu: aurreko egunetik datorren jan eza amaitu (jamar, llenar la tripa).

• **"Ez juat beste garagardorik nahi, ok egin juat"**. Ok egin, ple egin: jatekoarekin edo edatekoarekin bete (estar hasta las cejas de comida o bebida).

• **"Hori don idixkua", "Hori dok durdulia"**. Idixkua izan: gizon oso ederra izan. Durdulia izan: neska pinpirina izan (tío/a bueno/a).

• **"Igurtzi batzuk egitten egon giñuazan"**. Igurtzixak egin: ferekatu, laztandu (pillar cacho, magrear, sobar).

• **"Ez hadi koplekin etorri"**. Koplekin etorri: ipuinekin etorri (venir con chorradas, venir con cuentos).

DISKOAK / JOXE MARI ANDUAGA GITARRA JOTZAILEAREN LEHEN BAKARKAKO DISKOA

NIREAUKERA

Barne munduaren doinuak

'BIZITZA BERA' DISKOA AURKEZTUKO DU JOXE MARI ANDUAGA MUSIKAGILE OÑATIARRAK APirilAREN 11N

LEIRE KORTABARRIA

Joxe Mari Anduaga musikagile oñatiarrak dagoeneko gertu dauka lehenengo bakar-kako diskoa, ia bizitza osoa musika elkarte eta taldeetan pasatu ondoren. *Bizitza bera* izeneko bilduma apirilaren 11n aurkeztuko du, Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean.

Oso disko berezia da *Bizitza bera* Joxe Mari Anduaga oñatiarra-
rendako. Izan ere, txikitandik izan da musikazale eta jotzaile gogotsua, baina hori izango du lehenengo diskoa; luzaroan barnean zeraman irrika baten emaitza, hortaz.

"Lan pertsonala eta intimista da", diosku egileak diskoaren gainean. Intimismo hori abestien gaitan islatzen da: "Abestietatik erdiek-edo sentimenduez jarduten dute; bizi eta ikusi izan ditudan gauzen gainean egiten dut berba. Badaude amodiozko pare bat abesti ere, eta umezaroko kontuak eta oroitzapenak jorratzen dituztenak", azaltzen digu Anduagak.

Beste abesti batzuek herri gaiak dituzte aintzat: "Herri txikitako bizimoduaren gainean jardun dut abesti baten; herri txikitako jendeak dugun jakinmin horren gaineko kritikaren bat edo beste bota dut", diosku bakar-lariak.

HAINBAT LAGUNEKIN

Gertuko jendearekin lankidetzan mamitutako abesti bilduma da;



GOIENKARIA

Joxe Mari Anduaga oñatiarrak apirilaren aurkeztuko du bere lehen diskoa.

Anduagak berak diskoko bospasei abesti idatzi ditu; Juan Martin Elexpuru idazleak, bi; Ixabel

Ramosek, beste bi; eta gainerakoak elkarrekin idatzi dituzte. Musikari dagokionez, Joxe Mari

Anduagak berak, abesteaz gain, gitarra akustikoa jo du; Iraia Aizpuruak, biolina; Amaia Azpia-zuk *Txikitari* abestia kantatu du; Xabier Ugartek gitarra klasikoa jo du *Nor bagina* abestian; eta Angel Untzuk, ekoiztearekin batera, gitarra akustikoa eta klasikoa, mandolina, pianoa eta perkusioa jo ditu.

Zarauzko Noizbehinka estudioan grabatu zuen lagun talde horrek *Bizitza bera*.

12 URTE ZITUENETIK

Joxe Mari Anduaga bakar-lari moduan estreinatuko da disko horrekin, baina ez da musikan inongo hasiberria.

47 urteko oñatiar horrek 12 urterekin ikasi zuen gitarra jotzen. Aita soinu jotzailea zen, eta harengandik jaso zuen musikarekiko zaletasuna. Geroztik, Oñatiko Musika Eskolako Gitarra saileko sortzaileetako bat izan zen; Oñatiko Abesbatzan 15 urtez ibili da; Kuarteto Madina eta Alai taldeetako kide izan zen...

Hala ere, bere kabuz ere konposatzen zituen abestiak Joxe Mari Anduagak: "Orain dela hiru urte, 16 abesti grabatu eta Angel Untzu ekoizleari eman nizkion; hari gustatu egin zitzaizkion, eta lankidetzara hasi zen", dio musikariak.

Oraindik, diskoa "ahalik eta leku gehienetan" aurkeztea du helburu Joxe Mari Anduagak, etorkizunerako musikarekin lotutako aparteko planik gabe. "Aurkezpen hau dut oraingoz buruan; gero, ikusiko dugu", dio.



'MILITARREN JAKINDURIA'
Mikel Larraz

Denatarik irakurtzen ari naiz azkenaldian: Pako Aristiren *Euskal Aberria* eta Edorta Jiménez-en *Azken fusila*, adibidez; baita honakoa ere. Egunotan, munduko politika giroa hain nahaspilatuta dagoen uneotan, oso irakurketa egokia eta gomendagarria iruditzen zait liburu hau. Gakoa argitaletxeak kaleratu du, euskaraz eta gaztelaniaz. Ehun bat orritan, militarren inguruko anekdota eta bitxikerien kontakizunaren bidez, argi eta garbi ulertarazten digu militarren jakintza zein den. Gaur egun bizitzen ari garen Gerra Hotz giro honetan irakurtzeko liburu aproposa. /L.K.



Eneko Barberena

Arrasate, 19 urte. *Igogailuak*, *Dow Jones* eta *beste droga batzuk* liburua idatzi du.

KALERATUBERRIAK / Iban Arantzabal

LIBURUA / Narratiba



VAN T HOFFEN ILEA


Unai Elorriaga
Elkar
218 orrialde

Gazteendako Igartza saria irabazi zuen liburu honekin. Hala ere, *SPrako Tranbia*-rekin egin da ezagun, Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi eta gero. Sari hori irabazterako amaiturik zeukan ia hurrengo nobela.

Maitagarri bezain xeberak dira liburu honetako pertsonaiak ere, bai protagonistak, bai bigarren mailakoak, eta haien bitartez hainbat gertaera arraro eta istorio bitxi bizi izango ditugu.

Misterioz misterio, gizatasunez betetako amaierara iristen garen arte irakurriko dugun liburua da Elorriagarena.

DISKOA / Itzulpena



ATZO

Agota Kristof
Alberdania-Elkar
Eskarne Mujika
111 orrialde

Kontakizun hau tristea bezain samurra da, bizitza bezain gordina, eta, hala ere, oso gustura eta erraz irakurtzen da. Horixe da Agota Kristofen trebezia, historiak kontatzen oso ondo dakiela. Ondo asko daki hori euskal irakurleak, harrera ezin hobea egin zion-eta haren *Kuaderno handia* estreinako nobelari.

Nobela honetan, maitasun ezinezko bat kontatzeaz gain, deserriaz hitz egiten digu idazleak, ohi bezala, bakardadeaz, iraganaren mamuz, babes-herrian errefuxiatuek bizi izateko dituzten zailtasunez... Estilo xumean, betiere.

DISKOA / Trikia



TRIKITXUTERIK

Iker Goenaga
Elkar-Triki
12 kanta

Mikel Laboaren taldeko eskusoinu jotzailea da Iker Goenaga gaztea, baina beste hainbat musikari-ekin ere kolaboratu du. Bere belaunaldiko trikitilarien artean Goenagak egin du trikiti tradizionalaren bidea jorratzeko apustu garbiena. Joseba Tapiaren babesarekin lehen diskoa grabatu zuen, *Soinugorri* izenburukoa. Kantu sinpleak, eskurakoak eta sendoak era berean disko honetan dakartzanak. Taldearen sonoritate berritua igartzten da diskoan, herrikoia abiapuntu duena. Gitarraren eta trikiaren arteko joko deigarri egiten da.

Martxoak 21-28

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

LEHIAKETAK

ARAMAIO

► **Aramaio**ko San Martin jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Gura duenak har dezake parte. Hori bai, A-3 edo A-2 formatuan edo euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira lanak. Derrigorrezko testua da *San Martinak 2003 Aramaio - Uztailak 4, 5, 6 eta 7*. Maiatzaren 30a baino lehen bidali behar dira lanak Aramaio udalera.

ARRASATE

► **Aktore ez profesionalen lehiaketa** deitu du Arrasateko lamai kafetegiak. Bidali zuen curriculumak Kontzezino kaleko 14ra (baxua).

DEBAGOIENA

► **Espainiako gerran fusilatu zituztenen memoria historikoa berreskuratzeko monolitoa** egingo dute, eta horrendako leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du desagertuen senideen taldeak. Debagoiengan bizi, lan egin edo ikasten duen edozeinek har dezake parte. Gehienez ere 30 hizki izan beharko dira esaldian. Esaldia lelo batekin sinatuko beharko da; gero, gutunazal baten lelo bera idatzi eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina ipini beharko dira. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Epea maiatzaren 6a izango da.

MUSIKA

BERGARA

► **Udal Musika Bandaren** kontzertua izango da etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

ELGETA

► **Ttak eta Cyprinidians** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

ELORRIO

► **Audience taldeak** kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► **Mar Gómezen dantza konpainiak** *La casa de l'est* dantza emanaldia egingo du bihar, zapatua, Arriola aretoan, 22:30ean.

► **Xabier Montoiak** emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilak 28, Arriola aretoan, 22:30ean.

OÑATI

► **Kokein (Eibar)** taldearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Euskaldunon Egunkaria-ren aldeko** herri batzarrak batzarra egingo

du datorren martitzenean, martxoak 25, udaletxean, 18:30ean. Interesa duen edozein gertura daiteke.

► **Arrola Mendi Elkarreak** urteroko batzarra egingo du datorren egunean, hilak 27. Segidan, Josune Bereziartu eskalatzailak diaporama emanaldia egingo du.

BERGARA

► **Blokeoaren aurrean, elkarriketaren alternatiba. Berrito saiatuko al gara? delako hitzaldia** egingo du Elkarrik datorren egunean, hilak 27, kultura etxean, 19:30ean.

► **Bidebarriko rock jaialdian** esku hartu nahi duten talde guztiek kultura etxean eman beharko dute izena, martxoaren 29a baino lehen. Jai batzordeak erabakiko du zein taldek hartuko duten parte jaialdian.

DEBAGOIENA

► **Ibarreko Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak** egindako zozketan 0834 zenbakia saritu dute. Saria Karibera bidai da. Irabazleak dei dezala 677 38 82 47 telefonora.

ELGETA

► **Gaztetxearen zazpigarren urteurrena** ospatzeko ekitaldiak

izango dira asteburuan. Bihar, zapatua, triki-txikiteoa egongo da, 12:30ean, eta bazkaria, 14:30ean. Iluntzean berriro triki-txikiteoa egongo da eta gauean, musika emanaldia.

ESKORIATZA

► **Eskiatzera joateko irteera** antolatu du Udal Gaztedia Sailak apirilaren 5erako eta 6rako. 12 eta 30 urte bitarteko gazteendako. Izena emateko azken eguna martxoaren 21a izango duzue. Horretarako, jo kultura etxera, 10:00etatik 13:00etara edo 14:00etatik 17:00etara.

EUSKAL HERRIA

► **Euskaldunon Egunkaria-ri** lagutzeko kontu-korrentea dago zabalik: 3035 0092 56 0920055559 duzue zenbakia.

OÑATI

► **Mendi Astea** antolatu du Aloña Mendi elkarteko Mendi Sailak, eta gaur izango da azken proiektzioa. Hain zuzen, *Zazpi bidai Atlasean barrena* delakoa proiektatuko dute, Xabier Garretaren eskutik.

► **Guraso Eskolak** antolatutako beste saio bat izango da hilaren 25ean hasita. Gurasoen eta seme-alaben

arteko harremanean finkatu beharreko arauak izango dira berbagai. Lehen taldeak hilaren 25ean hasiko du ikastaroa, Garoa aretoan, 14:45ean. Eta bigarren taldeak, apirilaren 3an.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Marcelino Ruiz** margolariak erakusketa inauguratuko du martxoaren 28an, Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Apirilaren 13ra arte izango da ikusteko aukera, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan, horrez gain, 12:00etatik 14:00etara.

BERGARA

► **Azurren Euskal Txokoak** argazki erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, martxo bukaerara arte.

OÑATI

► **Xabier Garretak Atlasera (Maroko)** egindako bidaiaren gaineko



► KONTZERTUAK

LEHEN MAILAKO FUNKYA, ANDALUZTIK BERGARAKO JAM-ERA

Funk, rock, hip-hop eta metal estiloak andaluziar flamenkoko detaile gustagarriekin nahastuz, eta musika horri *andaluziarrez* abestutako letra ironiko eta dibertigarriak gehituz gero, emaitza andaluziar funk onena izango da. Horixe da, hain zuzen, O'Funk'illo Sevillako taldeak eskaintzen diguna. Bergarako Jam aretoan izango da taldea, *En el Planeta Aseituna* bere disko berria aurkezten. Publiko izugarriandako estiloa jorratzen ez badute ere, Nigel Walkerrek (Rolling Stones, Thin Lizzy, Mick Jagger...) ekoiztutako disko bat kaleratu zuten, eta Espárrago, Viña Rock... bezalako jaialdietan hartu dute parte. Eurekin batera, Dawholeenchilada taldea ere arituko da Jam aretoan.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Martxoaren 22an, zapatua. **Ordua:** 22:00etan.

GERIATRIKO ERIZAIN LAGUNTZAILE IKASTAROA

Doan: INEMen laguntzarekin
Iraupena: 259 ordu (praktikak barne)
Hasiera: apirilaren 2an
Izenematea: martxoaren 25era arte
Informazio zabalagoa:
ICTE (Hirugarren Adinekoen Institutu Komunitarioa)
Tel.: 943 77 16 99 eta 943 77 17 15



URRETXINDORRAK ZOSKETA!

Urretxindorrek talde bergararraren azken bildumako **BOST DISKO ZOSKETATUKO** ditugu gure irakurleen artean. Parte hartzeko, bidali beheko kupoiak bertan agertzen den helbidera. Kupoiak jasotzeko azken eguna martxoak 27a.



Izen-abizena: _____

Telefonoa: _____

Herria: _____

Goiena Komunikazko Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE



'EGUNKARIA'-REN ALDEKO MENDI IRTEERA

Besaidera mendi irteera antolatu du Oñatiko *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko batzordeak etzirako, domeka. Autobusak antolatu dituzte, Unibertsitate parean, 08:00etan. Besaiden bertan ekitaldia egingo dute, 12:00etan. Izena emateko, jo Aloña Mendi tabernara.

erakusketa dago oraindik ikusgai Santa Ana aretoan, gaur azken egunez. 19:00etatik 21:00etara bisitatu ahal duzue.

► **La pegatina: documento histórico** pegatina erakusketa dago ikusgai kultura etxean, martxoaren 24ra arte, astelehena.

IKASTAROKAK

ARRASATE

► **Euskal dantza ikastaroa** antolatu du Gaztedia Sailak. San Juan jaietara arte izango da, egubakoitzero, 19:00etatik 20:30era.

DEBAGOIENA

► **Psikomotrizitate sentsibilizazio saioak** antolatu ditu Arizmendi Ikastolak, bere langileei zuzenduta. Datorren saioa hilaren 27an izango da, egubakoitza, Ferixaleku-gunean, 16:45-19:45. Egun eta ordu berean, Bergara-ko UNEDen ere izango da.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Las punkis también lloran** antzezlana eskainiko du Gasteizko Detritus taldeak gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko lamai kafetegian, 00:00etan. Sarrera doan da. Datorren egubakoitzean, leku eta ordu berean, *100 años de perdón* antzezlana.

BERGARA

► **Trabena-txoua** ikuskizuna eskainiko du Goaz taldeak datorren egubakoitzean, hilaren 28an, Pol-Pol tabernan, 22:30ean, ... ta segi aurrera plataformak antolatuta.

ESKORIATZA

► **Jacqueline de Barros ipuin kontatzaile** uruguiarrararen emanaldia izango da datorren egubakoitzean, hilak 28, Unibertsitate-an, 22:30ean. Helduei zuzendutako emanaldia da.

JAIK

ELGETA

► **Zuhaitz Eguna** ospatuko dute herritarrek etzi, domeka. Herriko plazan elkartuko dira, 9:00etan, eta zuhaitzak landatzera joango dira.

OÑATI

► **Giokela festa** izango da bihar, zapatua, herriko plazan, 19:00etan. Gipuzkoako hainbat harakin eta baseritarrek osatutako Giokela elkarteak antolatutako jai da. Oñatz dantza taldeak ere parte hartuko du.

Zinema

ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

Amor con preaviso
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ AMAIA ANTZOKIA

11.09.01
Eguena, zine kluba: 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

Ocho millas
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.
Amén
Eguena, zine kluba: 20:00.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEA

El jardín de la alegría
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Etxaldeko erregea
Zapatua eta domeka: 17:00.
Smoking room
Eguena, zine kluba: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Amor con preaviso
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

A propósito de Schmidt
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Mortadelo y Filemón
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.

La prueba

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Hable con ella

Egubakoitza eta domeka: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

Daredevil

Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45.

Utopía

Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.
El pianista
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:30.
El americano impasible
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

El crimen del padre Amaro

Egubakoitza eta domeka: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.
MIKELDI ZINEMAK
The eye
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.
La prueba
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Mortadelo y Filemón

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Las horas

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 22:45.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:30.

Este cuerpo no es el mío

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Narc

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Lejos del cielo

Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Daredevil

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

El pianista

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:00.

Hable con ella

Egunero: 17:30, 20:15.
Film laburrak euskaraz
Eguaztena: 20:00, 22:00.
Martitzena eta eguna, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Las hermanas de la Magdalena
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 19:45.

El jardín de la alegría

Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 19:45.

Mi vida sin mí

Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

A propósito de Schmidt

Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua: 17:30, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 22:30.

Frida

Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua: 17:30, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 22:30.

Utopía

Egubakoitza: 18:20, 20:25, 22:35, 00:40.
Zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:35, 00:40.
Domeka: 16:15, 18:20, 20:25, 22:35.

El ladrón de orquídeas

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

Gangsters de Nueva York

Egubakoitza: 17:30, 20:45.
Zapatua: 17:00, 20:15, 00:00.
Domeka: 17:00, 20:15.

Soldados de Salamina

Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Lejos del cielo

Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

■ STER ZINEMAK

Chicago

Egubakoitza: 18:25, 20:40, 22:55, 01:10.
Zapatua: 16:10, 18:25, 20:40, 22:55, 01:10.
Domeka: 16:10, 18:25, 20:40, 22:55.

A propósito de Schmidt

Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 01:00.
Domeka: 22:30.

La prueba

Egubakoitza: 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Zapatua: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Domeka: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55.

Daredevil

Egubakoitza: 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.
Zapatua: 15:55, 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.
Domeka: 15:55, 18:05, 20:15, 22:25.

Gangsters de Nueva York

Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:15, 00:30.
Domeka: 18:00, 21:15.

Utopía

Egubakoitza: 18:20, 20:25, 22:35, 00:40.
Zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:35, 00:40.
Domeka: 16:15, 18:20, 20:25, 22:35.

Amor con preaviso

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:45, 22:00, 00:30.
Domeka: 17:40, 19:45, 22:00.

El planeta del tesoro

Egubakoitza eta zapatua: 15:40.
Domeka: 12:00, 15:40.

A propósito de Schmidt

Egubakoitza eta zapatua: 21:30, 00:00.
Domeka: 21:30.

El americano impasible

Egubakoitza: 18:30, 20:45, 23:00, 01:10.
Zapatua: 16:20, 18:30, 20:45, 23:00, 01:10.
Domeka: 16:20, 18:30, 20:45, 23:00.

Amor con preaviso

Egubakoitza: 18:10, 20:20.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:10, 20:20.

Mortadelo y Filemón

Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

Este cuerpo no es el mío

Egubakoitza: 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Zapatua: 16:20, 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Domeka: 16:20, 18:30, 20:40, 22:50.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

Atrápame si puedes

Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 19:00.
Domeka: 11:35, 16:10, 19:00.

Frida

Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:30.
Domeka: 22:15.

Adaptation

Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:00, 20:10, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:00, 15:50, 18:00, 20:10, 22:25.

Star Trek: Némesis

Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:05, 20:10, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:00, 15:55, 18:05, 20:10, 22:25.

Amor con preaviso

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:45, 22:00, 00:30.
Domeka: 17:40, 19:45, 22:00.

El planeta del tesoro

Egubakoitza eta zapatua: 15:40.
Domeka: 12:00, 15:40.

A propósito de Schmidt

Egubakoitza eta zapatua: 21:30, 00:00.
Domeka: 21:30.

Las horas: ●●●● | Los lunes al sol: ●●●● | A propósito de Schmidt: ●●● | Atrápame si puedes: ●● | Gángsters de Nueva York: ●●● | Chicago: ●●●●

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

KRITIKA

LEJOS DEL CIELO

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Todd Haynes.

AKTOREAK: Julianne Moore, Dennis Quaid, Dennis Haysbert.

Estreinu berri den *Lejos del cielo* filmean Todd Haynes-ek 50eko hamarkadan egiten ziren melodramei omenaldia egin die. Film horietako ezaugarri guztiak ondo batuz eta erabiliz, magiarekin antza duen zerbait lortu du: irudiak ikusten hasi bezain laster, momentu baten zinema gelak 45 urteko atzerako jautzia eman duela dirudi eta ikus-

leari irudituko zaio 50eko hamarkadako ikuslea izatera pasatu dela.

Filmak sorrarazten dituen sentsazioak adierazteko, *magia* hitzarekin jarraituko dugu. Askotan, magoek gure aurpegi aurrean trikimailu bat egiterakoan, pausoz pauso beronen prozesua erakutsi arren, azkenean —betiko moduan— engainatu egiten gaituzte. Antzerako zerbait gertatzen da Todd Haynesen filmarekin. Melodrama klasikoan iturrietatik edanaz (filma bereziki Douglas Sirk-en zinemari lotuta dago: estetikaren aldetik eta argumentuari dagokionez, *Sólo el cielo lo sabe*-ren antz nabarmena du, baina baita *Imitación a la vida*, *Escrito sobre el viento* edo George Cukorren *Ha nacido una estrella*-rekin ere), film horietako ezaugarri guztiak mahaigainean jarri ditu: koloreen eta argiaren erabilera zoragarria da, udazken eta neguko tonu guz-



tiak ikusteko aukera dugu, jantziak eta dekoratuak sekulakoak dira eta Elmer Bernstein-en musikak murmur malenkonia giroa sortzen du. Pausoz pauso, Todd Haynes-ek bere kartak erabiltzen ditu eta, orain dela 45 urte gertatzen zen moduan,

ikusle askotxo ez dira zinematik irtengo musuzapia erabili barik. Hori ere magia da, zinemaren magia.

Todd Haynes-ek elipsiak eta eszena batetik bestera izaten diren trantsizioak maisutasun osoz erabili ditu. Horrela, oso lan dotorea egin du. Fintasunez eta zuhurtasunez hurreratzan da osagai melodramatikoetara, eta poliki-poliki ikuslearen bihotza ukitzen du. Julianne Moore eta Dennis Haysbert kafetegi batean dauden eszenan, filmak harrapatu egin gaituela nabaritzen dugu eta *The End* hitzak ager-tu arte ez gaitu askatzen. *Lejos del cielo*-ren ia berba gabeko bukaera benetan hunkigarria da, eta bertan, film guztian egin duen moduan, Julianne Moorek zinemako artista handien artean dagoe-la frogatzen du.

ANTONIO ZABALA

INMO f3
SARE inmobiliaria

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

ETXEBIZITZAK
ARRASATE
• Oso eguzkitsua. 115 m². Lau logela, bainugela bi, egongela, sukaldia, sotoa eta garajea. Erdialdean.
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
• 65 m². Logela bi, sukaldia, egongela eta bainugela. Ganbara eta sotoa dauzka. Ondo dago, sartzeko moduan.

BERGARA
• 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldia, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

ANTZUOLA
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.

ALOKAGAI
• Arrasate. 7 logela, 10 ohe, berogailua, egokitua. Langileendako egokia.

GARAJEA
• Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan erdialdean.

ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.

KUTZI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ANTZUOLA / Eraikiten ari diren elkarri lotutako etxeak
276.465,57 euro (46 milioi). Semisotoa. Garaje handia eta txokoa. Behoko solairuan: sukaldia, jangela, egongela, bainugela. Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela. Teillatueko solairua: m² ugari egokitze moduan.

BERGARA / Etxebizitzak salgai
• Koldo Elizalde 85 m²

BERGARA / Taberna salgai eta errentan
BERGARA / Lokalak salgai eta errentan
BASERRIAK
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Muti-
loa, Elosu, Zegama, Asteasu.

Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.

OÑATI

ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI 943 71 60 91

ARETXABALETA

TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI. 943 77 03 08

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldia eta ganbara ditu. 653 70 99 37.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. 103 m². Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Garajea eta trastelekua. 943 76 55 18.

Arrasate. San Josepe kalean etxebizitza saltzen dut: 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, gas naturala, berogailua, sotoa eta igogailua ditu. Igogailua oraindik egin barik dago, baina dagoene-

ko ordainduta dago. 943 77 16 19.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. 943 76 31 49.

Bergara. Etxebizitza salgai. 100 m². Sukaldia, hiru logela, egongela, bi bainugela, eta trastelekua. 605 72 36 63.

102. EROSI

Bergara. Etxebizitza txikia edo ganbara erosiko nuke, merketxo. 666 64 35 16.

103. ERRENTAN EMAN

Almeria. Etxebizitza ematen da errentan, hiri erdigunean, uztailan, abuztuan eta irai-

Iragarki sailkatuak

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1. ETXEBIZITZAK 101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEA OSATU 106. BESTELAKOAK	2. GARAJEAK 201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	3. LOKALAK 301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	4. LANA 401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	5. IRAKASKUNTZA 501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	6. MOTORRA 601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 603. KONPONDU 604. BESTELAKOAK	7. ANIMALIAK 701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	8. DENETARIK 801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	9. HARREMANAK 901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK	10. RELAX
---	---	--	--	--	--	--	--	---	------------------

lean. 649 03 47 20.

Almeria. Etxebizitza ematen da errentan, hondartza aurrean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen dut errentan Bizkaia kalean. 943 79 57 37.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Altzariz hornitutako hiru logela ditu; guztira, lau ohe. Igogailuarekin. 943 79 26 31.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Ikasleendako proposa. Berogailua dauka. Hornituta. Oso eguzkitsua. 943 79 58 74 edo 655 74 35 08.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 943 76 17 74.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Koldo Elizalde kalean. Deitu 20:00etatik aurrera. 615 76 21 02.

Peñíscola. Apartamentua ematen da errentan, uda partean. Lau lagunendako egokia. Aparkalekua eta igerilekua ditu. 943 77 19 09 edo 610 87 83 57.

Valle de Aran (Lleida). Etxebizitza ematen da errentan Aste Santuan eta Pazko astean. 630 08 24 17.

Zarautz. Etxebizitza ematen da errentan, udan. Hiru gela. Hondartzaren eta plazaren ondoan. 609 98 02 52.

ARRASATE

ETKETRESNA ELEKTRIKOAK IPINTZEKO PERTSONA BAT BEHAR DA: AUTONOMIA BADA, HOBETO. 943 77 13 13

LAN ESKAINTZA

DEBAGOIENERAKO ALEMAN IRAKASLEA BEHAR DUGU.
• Gida baimena beharrezkoa.
• Berehala lanean hasteko. interesatuak: recursos@cim-idiomas.com

ARRASATE

NESKA BAT BEHAR DA TABERNA BATEAN LAN EGITEKO. 943 79 74 09

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 629 96 74 33 edo 656 75 05 97.

Debagoiena. Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 635 71 12 88.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan. Sukaldia erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

Aretxabaleta. Neska edo mutila behar dut Aretxabaletan etxebizitza osatzeko. Monika. 649 62 23 07.

Arrasate. Etxebizitza lortu gurako nuke. Beste batzuekin bizi izango nintzateke. 696 55 52 09.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. 669 57 88 51.

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, bakarrik edo beste neska batekin bizi izateko, San Andres edo Erguin

aldean. 652 75 08 07.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garaje itxia salgai. 670 49 87 40.

Aretxabaleta. Garajea saldu edo errentan ematen da Araba Ibilbideko 27. zenbakian. 20 m² ditu, eta itxita dago. 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

Arrasate. Garaje itxia salgai Ferixalekuan. 646 53 59 51.

Arrasate. Garaje itxia salgai Musakola auzoan. 652 73 70 49.

Bergara. Bi garaje plaza salgai Burdiñatan. 609 47 94 43.

Bergara. Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Motoak eta

bizikletak lagatzeko proposa den garajea ematen da errentan. 943 79 86 72.

Arrasate. Kontzezio kalean dagoen garajea ematen da errentan. 658 72 09 87.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai Udape kalean. 60 m². Bulego edo biltegi moduan erabili daiteke. Gazeu deitu, edo mezua utzi. 943 79 91 14.

Bergara. Lokala salgai Zabaletegi. 943 76 40 24.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokal komertziala ematen da errentan Koldo Elizalden. Biltegi moduan erabili daiteke. 943 76 37 69.

Bergara. Lokala ematen da errentan Espolioan, prezio onean. 943 76 16 89.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 657 70 09 59.

Bergara. Emakumea behar da denda baten lan egiteko, goizetan. 943 76 19 07.

Bergara. Emakumea behar da gauetan emakume nagusi bati lagun egiteko. 943 76 10 92 edo 943 76 14 18.

Bergara. Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 13:00etatik 14:00etara. 943 76 18 11.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu lan egiteko, goizez, ordu

batzuetan. 943 79 74 30.

Arrasate. Mutil batek zerbitzari egingo luke lan. Arrasaldeetan eta aste bukaeretan. Esperientziaduna. 943 79 17 15.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, astelehenetik egubakoitzera. 696 84 19 51.

Bergara. Emakumea gertu orduka lan egiteko, etxeko lanetan edo atariak garbitzen. 667 53 44 66.

Bergara. Neska gertu edozein lan egiteko. 943 76 36 18.

Bergara. Pertsona zaharrak zainduko nituzke. 943 76 14 96.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago. Carlos. 679 20 99 24.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago. Israel. 678 95 09 77.

Debagoiena. Neska gaztea gertu umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, egunez. 635 71 12 88.

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. Esperientzia daukat. 615 71 02 35.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Antzuola. Ingeles Filologian eta Errusiar Filologian lizentziaduna gertu ingeleseko eta errusierako eskola partikularrak emateko. 943 76 63 10.

Arrasate. Irakasle ikasketetan diplomaturako neska gertu eskola partikularrak emateko. Ixone. 653 71 87 32.

Bergara. Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Ainhoa. 943 76 31 72 edo 605 76 32 72.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4/110ZP autoa salgai. 118.000 Km. 1998koa. 14.000 euro. 639 37 91 51.

BMW F650/ST motoa salgai. Oso ondo dago. Prezio ezin hobea. 696 21 55 75.

Opel Astra Caravan salgai. Diesela. Matrikula: SS-AT. 620 61 91 34.

Opel Corsa 1200 salgai. Merke. 646 41 66 99.

Opel Corsa 1400/16v/90ZP salgai. 2001eko abendukoa. 7.530 euro. Mari Jose. 943 76 37 61.

Opel Kadett autoa salgai. Oso merkea eta kilometro gutxi. IAT (ITV) urte osorako. Deitu damutu baino lehen. 699 11 83 63.

Opel Kadett furgoneta salgai. Diesela. Prezio onean. 670 49 87 40.

Range Rover Turbo Diesela salgai. 1988koa. Ondo dago. Prezioa: 2.800 euro. Arrasaldezu deitu. 653 74 96 66.

Renault 21 autoa salgai. Diesela da eta 11 urte ditu. 943 79 22 79.

Renault Laguna autoa salgai. 1998koa. Osagarriak ditu. Gasolinazkoa. 605 73 53 40.

7/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasate. Loo baserri inguruan izandako sutea dominantzen lagundu ziguten basozaintzari, suhiltzaileei eta ertzainei eskerrak eman gura genizkieke. Mila esker, guztioi, emandako laguntzagatik! Loo baserrikoak.

8/ DENETARIK

801. SALDU

LAN BILA ZABILTZA? 943 444 509

LAGUNTZAILEA. agentea edo justizia ofiziala. Deialdiak egingo dituzte laster. Euskal Herriko auzitegiaren lan egiteko. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

AIRE-KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udeletan. Eskakizuna: diplomaduna edo lizentziaduna izatea eta ingeleseko maila ertaina edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

AUTOESKOLAKO IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbidea. Diru sarrera oportoak. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

BASOZAINA. Egizu lan Euskal Herriko parke eta natura-erreserbetan. Eskatzen da: eskola-graduatu edukitzea. Presta zaitez. Adoz 943 444 509

SUHILTZAILEAK. Egizu lan Euskal Herriko parkeetan. Lan baldintza bikainak. Eskatzen da: eskola-graduatu edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

GARRAIOLARIA. Lor ezazu trebakuntza-titulua, garraiolari profesional izan zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK. Laster deialdiak egingo dituzte zenbait udeletan. Deialdiak egingo dituzte laster. Eskatzen da: eskola-graduatu edukitzea. Presta zaitez. Adoz. 943 444 509

LIBURUTEGI LAGUNTZAILEAK. Zenbait udeletan. Deialdiak egingo dituzte laster. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

GIDARIAK. argiketariak, atezainak, langileak... Egizu lan udeletan mendeko gisa. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

Arrasate. Danok Bat elkarteko (Roneoko etxeetan) bazkide plaza bat salgai. 1.800 euro. 943 01 04 81.

Korrika egiteko zinta. Reebok markakoa. Estreintatu barik. Prezio interesgarria. 943 76 07 69.

Mendiko eskiko botak salgai. Dynafit markakoa. Neurria: 37. Berriak. 680 29 73 64.

Ohe elektronikoa salgai. Nagusiek edo ezinduek maneiatzeko gertatua. Neurriak: 1,90 m luze eta 0,90 m zabal. Berrria. 606 86 91 97.

Piragua salgai. Errekan ibiltzeko edo surfean egiteko, biatarako balio du. Josu. 954 44 34 11.

Sukaldeko tresnak. Bigarren esku sukaldeko etxetresna elektrikoak eta akumuladoreak salduko nituzke. 943 77 17 28.

Trek 8100 mendiko bizikleta salgai. 676 66 08 98.

806. GALDU

Arrasate. Aratuste egunean Nikon markako argazki-makina automatikoa galdu nuen. Baliozko argazkiak ditu barruan. Iker. 943 79 92 05.

Arrasate. Cimarron markako panazko jaka bat galdu nuen zapatu gauean, eta Miss Sixty markako beste bat hartu nuen. Deitu, aldatzeko. 696 50 00 29.

GANESHA

Rastak eta extensioak

FORZETAKO PIERCING-A

TATTOO & BODY PIERCING

Mentxu, 943 71 18 24 • Olarte kalea 43 bis • ARRASATE

> KLINIKA LAGUNTZAILEAK
> LABORATEGI KLINIKOAK
> ESPERIENTZADUNA
> HIGIENEA 100%

AIPAGARRI

Fran Iturbe

BERGARA

Mikel Erentxun musikari donostiarrak kaleratu berri duen *Ciudades de paso* izenburuko diskoan hartu du parte Fran Iturbe gitarra jotzaileak. Laister diskoa aurkezteari ekingo diote. Era berean, Bide Ertzean eta Gozategi taldeetan ere jarraitzen du gitarra jotzen Iturbek.



Eusebio Corcuera

BILBO

Siglo XXI enpresako langilea da Eusebio eta Debagoieneko hainbat artelaren zaharbertitze lanen arduraduna da. Eskoriatzako armarria zaharbertitu berri du, esaterako. Bestetik, Bergarako Santa Marina elizako erretaularekin dihardu lanean eta eliza horretako hainbat pintura ere zaharbertitu ditu.



Ander Rodríguez

ARRASATE

Aurreko domekan joan zen Ander Rodríguez gazte mondragoetarra Irakera, hango herritarrei elkartasuna adieraztera. Bagdaden egon da eguazten gauera arte. Eguenean Jordanian zen, beste brigadista batzuekin batera. Gaur hegazkina hartu eta bihar, zapatua, iluntzean heltzekoa da Loiura.



JAIOTAKOAK

- Amia Rivera Montoya.** Aretxabaletan, otsailaren 26an.
- Janire Bassecourt Pérez.** Antzuolan, otsailaren 26an.
- Aner Uribesalgo Otxoa.** Arrasaten, otsailaren 28an.
- Oier Uribarren Arteaga.** Arrasaten, martxoaren 4an.
- Unai Martínez Gorostegi.** Bergaran, martxoaren 4an.
- Egoitz Andrés Navas.** Bergaran, martxoaren 5ean.
- Jon Zapata Clemente.** Bergaran, martxoaren 5ean.
- Malen Basabe Arkauz.** Aretxabaletan, martxoaren 5ean.
- Urko Rodríguez Iturbe.** Arrasaten, martxoaren 6an.
- Aroa Arévalo Abascal.** Bergaran, martxoaren 6an.
- Mikel Coronado Hidalgo.** Arrasaten, martxoaren 7an.
- Ainara Gómez Familiar.** Bergaran, martxoaren 7an.
- Ander Jiménez Flores.** Bergaran, martxoaren 8an.
- Eneritz Osinaga Osinaga.** Oñatin, martxoaren 8an.
- Alaitz Elejalde Babarro.** Aramaion, martxoaren 8an.
- Andoni Pérez Pérez.** Arrasaten, martxoaren 9an.
- Garazi Razkin Txurruka.** Eskoriatzan, martxoaren 9an.
- Jon Razkin Txurruka.** Eskoriatzan, martxoaren 9an.
- Itziar Navero Martín.** Arrasaten, martxoaren 12an.
- Paula Ardions Negreira.** Oñatin, martxoaren 13an.

HILDAKOAK

- Ezequiel Sánchez Carmona.** Arrasaten, martxoaren 12an. 67 urte.
- Hilario Lizarralde Uribetxeberria.** Arrasaten, 13an. 78 urte.
- Raquel Gamba Biteri.** Oñatin, martxoaren 13an. 55 urte.
- Melchor Mascariño Gaztañaga.** Aramaion, 14an. 87 urte.
- Alberto Galdos Erle.** Oñatin, martxoaren 15ean. 93 urte.
- Faustina Arakistain Oñederra.** Oñatin, martxoaren 15ean. 90 urte.
- Sabino Pagoaga Guridi.** Oñatin, martxoaren 15ean. 87 urte.
- Catalina Cáceres Dávila.** Arrasaten, martxoaren 17an. 103 urte.



Lisbe Volina Salas
Arrasate • Martxoaren 12a • 2,600 Kg. Gurasoak: **Juan Luis Volina** (Dominikar Errepublikan) eta **Evelyn Salas** (Kolonbia). Argazkian, umea amarekin.



Itziar Navero Martín
Arrasate • Martxoaren 12a • 3,800 Kg. Gurasoak: **Anjel Navero** (Arrasate) eta **Maria Jesus Martín** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



Unax Isasi Ubera
Elgeta • Martxoaren 15a • 2,300 Kg. Gurasoak: **Rebeka Ubera** (Elgeta) eta **Enrique Isasi** (Eibar). Argazkian, umea amaren besoetan.

II. URTEURRENA

Eugenio Aiala Abarrategi

1975/02/26
2001/03/17

*Hasi zenuen bidaiak
Ez gaitu aldenduko
Gure artean zera ta
Ez zaitugu ahaztuko
Zure irrifarre
Eta bizi nahia
Gure bizitzetarako
Ikasgaia*



LAGUNAK

ESKELA

Esperanza Aranguren

Jose de Aspiazuren alarguna

Suitzako Geneva hirian hil zen
2003ko martxoaren 2an

Meza zapatuan, martxoaren 22an,
19:30ean, Oñatiko Mikel
Goiaingeruaren elizan.



ZURE SENIDEAK

URTEURRENA

Irene Arkauz Iturbe

2002ko martxoaren 21ean hil zen, Gasteizen, 63 urte zituela

*Gogorra izan da
gehiago ez ikustea
baina bizi geran artean
ez zaitugu, ez ahaztuko
gure oroimenean zure irudia
ez da inoiz faltatuko
eta bihotzez ta sinismenez
ez zara hiltzen betiko*



Senarrak eta etxekoek haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete. Domekan, martxoaren 23an, goizeko hamabietan, **Eskoriatzako San Pedro** parrokian. Guztioi, eskerrik asko alde zurretik.

I. URTEURRENA

Mari Pili Jiménez Benito

Lehen urteurreneko meza martitzenean, martxoak 25, 19:00etan, **Arrasateko San Frantzisko** parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELA


Maite Iñarra Bolinaga

Eskoriatzan hil zen 2003ko martxoaren 19an, 52 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*



Axtrokiko lagunak



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietako batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.

JASO NAHI DITUZU 3 'ARGIA' ZURE ETXEAN DEBALDE?

Ezagutu 'Argia' astekaria

Argia astekariak eta GOIENKARIAk elkarlan hitzarmen bat sinatu dugu, elkarren arteko harremanak sendotzeko eta euskarazko prentsaren esparruan bakoitzak jokatzeko duen papera indartzeko.

Hori dela eta, *Argia* astekariak, berau ezagutzera emateko Euskal Herriko hainbat erakunde eta komunikabiderekin batera aurrera daraman kanpainaren barruan, *Argia* astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskainiko dizuegu GOIENKARIAren irakurle guztioi, datorren asteko alearekin batera.

Kanpaina hau, martxoaren hasieran burutu nahi baldin bagenuen ere, *Egunkaria*-ren itxieraren eta euskal prentsak jasan duen erasoaren ondorioz atzeratu behar izan dugu. Baina eraso guztien gainetik aurrera egiteko erabaki irmoa dugunez, inoiz baino konbentzimendu eta ilusio handiagoz heltzen diogu elkarlan honi.

Euskal prentsak bizi duen une zail honetan, denok eskaini genezakeen laguntzarik onena, hain zuzen ere, hauxe da: euskarazko egunkaria eta euskal prentsa erosi eta irakurtzea. Animo!



ARGIA ezagutu nahi baduzu,
bete txartela eta
3 ale doan jasoko dituzu

© 943 37 15 45 • www.argia.com • harpide@argia.com

Izena
Deiturak
Helbidea
P.K.....Herria
Telefonoa.....
e-posta

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ



1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA

Argia-ren 3 ale jaso nahi baldin badituzu, beraz, honako hau egin behar duzu:
datorren asteko GOIENKARIArekin batera jasoko duzun postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, **943 37 15 45** telefonora deitu (Edurnez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.



HERRIZ HERRI

Oñati

Gogoratu zuk ere alkateari galdera zuzendu diezaiokezula
943 71 23 93 telefonora deituta.

Eguaztenean,
20:30etatik aurrera

Errepikapenak: eguaztenean 22:30ean,
egunean 14:00etan eta asteburuan 15:00etan.

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea



**Ikusiko
duzu!**



HITZGEZIDUNAK

Luma

	Eguneroko erosle	Aurrizkia	Gizon izena
	Txinako hiriburua	Jarduera fisikoa	
	Ezten		
	Salda		
Erraz mintzen dira	Galdetzaile bat		Potasioa
* Deitura	Gironako autoetan		Lazoa, segada
* Izena			
Utik!			
	Uranioa	Infin., akitu	
	Gorputz atala	Eraso azkarra	
Infin., igarri		Jupiterren satelitea	
Hizki ba-ten izena		Jainko egiptoarra	
	Garai, aldi		Konforme
	Listu		
Bazterra			Bokala
Ugari			501
		Kontso. bustia	
		Nor atzizkia	
Interjekzioa	Trebe		
Izanak	Nitrogenoa		
			Kontsonantea

BILABILATZ



UMOREGIROAN / Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

BURUANDIXARI ERANTZUN GOGORRA

Eibartar buruaundi estrapelista bat Felixen kontura barre egin naixan zebillen. Neurritik kanpora be pasau zan, eta naiko faltau zeban gure Felix. Au, baiña, etzan ixildu eta esan zetsan zorrotz:
- Ixildu ari. Ire moduko buru aundixak San Juan bezperan puxigiakin urtetzen dabe aiuntamien-to azpitxik.

MOTOTXENIAN

Kaporal ta bere laguna jua dira Mototxenera. Edan dabez bi bermut eta jua dira kalera ordaindu barik. Mototxek, ikusitza orduan be sartu zetzela zirixa, diño:
- Ez ba, gaur pagau biarki juek!

Ordubi eta erdietan badatoz barriz lagunok eta eskatzen dabe bi txikito.

Mototxek:

- Lengotik lengua pagau!
- Eta Kaporalak:
- Ara, ba, konfundidu ei aiz.
- Guk, oiñ, etxaukau dirurik. Len bai!

BAI, ERMURUTZ

Egun baten jua da *Balbotin* ugezabarengana. Auxe eskabidiau eitxen zetsan: jornaia altxatzeko. Eta ugezabak orduan:
- Baiña, ez ago konforme irabazten duanakin, Alfatik urrengo geu gaitxuken arren?
- *Balbotin*-ek zoli-zoli:
- Bai, Ermurutz!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zein herritakoak dira urteko lehenengo jai nagusiak?

Udaberrian sartu gara gaur eta, neguan zehar ibarreko hainbat auzotan jaiak izan badira ere, udaberrian hasten dira herrietako jai nagusiak. Jakingo zenuke, baina, zein herritakoak diren urteko lehenengo jai nagusiak?

- Arrasateko San Juanak.
- Oñatiko San Migelak.
- Bergarako Mendekosteak.
- Aretxabaletako Andra Mari Zurikoak.

8ra bitartean.

Erantzun zuzena: Bergarako Mendekosteak. Aurten, ekainaren 4tik

SOLUZIOAK



S	•	K	V	N	V	K	U
O	I	A	I	•	A	I	•
D	D	•	Z	U	R	R	E
A	•	V	Z	T	E	R	•
•	O	A	R	•	B	E	U
O	I	•	R	A	I	G	•
I	K	I	•	U	•	T	U
S	A	L	O	K	I	N	•
A	L	O	R	O	L	G	S
K	•	R	Z	•	S	•	
I	R	I	Z	•			
N	I	K	E	P			
•	B	•	B	•			

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Zure ingurukoekin arazoak izango dituzu; izan ere, individualistegia zara eta gauzak zeure erara egiten dituzu. Hori dela eta, bai zuri bai zure ingurukoiei eragingo dieten erabaki garrantzitsuak hartuko dituzu, inori galdetu barik.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Taurus zeinua dutenen bizitzako alderdi guztietan nahaste-borrastea izango da nagusi. Dagoeneko ez dakizu zer gura duzun, zein diren zure helburuak... Eta erreflexionatu egin beharko duzu zure helburuak finkatzeko. Lanean ardura gutxiago izango dituzu; horrela, zure ingurukoekin denbora luzeagoan egoteko balio izango dizu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure nekazintasunari eta konstantziari esker, hain denbora luzean borrokatzen ibili zaren helburuak bete egingo dira. Astean barrena konprobatuko duzu hori. Bestalde, ahalegindu zaitzen familia alde batera ez uzten, osterantzean, disgusturen bat izan dezakezu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Lanean arazoak izango dituzu; hanka sartze baten eraginez, zure postua hobetzeko aukera galdtu egingo duzu. Jaten eta edaten egingo dituzun gehiegikeriek kalte egingo dizute; hortaz, zaindu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Hainbat lan-proposamen egingo dizkizute, eta duda-mudatan ibiliko zara, ez duzu jakin izango zein aukeratu; izan ere, soldata hoberena eskaintzen duen lanak ez zaitu aseko, eta alderantziz.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Zure bizitzako hainbat alderditan geldirik eta ase bete egongo zara; hori dela eta, aldaketa beharra izango duzu. Baina orain ez da aldaketa horiek egiteko sasoa; horiek egin aurretik, informazioa eta aholkularitza eskatu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Egin behar ugari edukiko dituzu, eta ezin izango duzu egin aurretik pentsatuta zenukan bidaia atsegingarria. Ingurukoekin arazoak izango dituzu; izan ere, zure irizpide eta ikusmoldeak inposatzen ohituta zaude, besteak beste, kontuan hartu barik.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Zure ekimen eta proiektuak geldirik daude, aldaketa batzuk egin behar dira-eta. Besteen iradokizunei kasu egiezu, oso erabilgarriak izango zaizkizu-eta.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Hartu-emanetan krisialdia; uste duzu hartu-emanen ez dizutela ekarpenik egiten. Harreman berriak egiten ahaleginduko zara, estimulu berrien premia duzu-eta. Jendea ezagutuko duzu eta atzean utziko dituzu betiko harreman batzuk.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Lanean erantzukizun handiagoak izango dituzu, eta gaizki sentituko zara arrazoi birengatik: batetik, ez duzu soldata-igoerarik izango; eta, bestetik, ez duzu esker onik jasoko egindako lanagatik. Horrez guztiaz gain, horrek eragingo du lagunekin eta familiakoekin gura adina denbora ez egotea.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Bikotekiderik baldin badaukazu, zuen arteko harremana sendotuz eta indartuz joango da. Eta ez baldin badaukazu, mutil/neska bat ezagutzeko aukera izango duzu, baita harreman egonkorra hasteko ere.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Ametz egiteko eta fantasiaren munduan bizitzeko daukazu joerak kalte egin diezazuke, batez, ere, lanean; izan ere, oso kontratu aproposa sinatzeko aukera gal dezakezu.



'e-debagoiena'

MARTITZENA/ 20:30 eta 22:30

'e-debagoiena' proiektuaren berri martitzenean

Datorren martitzenean, martxoaren 25ean, urtebete beteko da *e-debagoiena* egitasmoa aurkeztu zela Leintz Gatzagan. Hori dela eta, urtemuga horren gaineko programa berezia eskainiko dizuegu datorren martitzenean. Azken urte honetan proiektuak zein aurrerapauso egin duen eta zer geratzen den egiteko konatatuko dizuegu. Horretarako, erreportajeak prestatu ditugu, baita elkarrizketak ere. Bestalde, ibarreko KZGuneen berri emango dizuegu.



'Herrilan'

EGUAZTENA/ 20:30 eta 21:15

Oñatiarrak herrilanean eguaztenean

Alberto Gorritibereak aurrez aurre izango du Angel Iturbe Oñatiko alkatea. Oraingo saioa Oñatiri eskainitako bigarrenena izango da, eta denboraldiko azkenaurrekoa. Izan ere, azken txanpan sartu da *Herrilan*, eta apirilaren 9an esango digu agur, Arrasateren gaineko saio batekin. Aste honetan, baina, Oñati izango da protagonista. Bitxikeriarik ez da falta izango, eta telefonoak zabalik egongo dira Anjel Iturberi zuzenean zer edo zer galdetzeko.



TELEBERRIAK

Irakeko gerraren gaineko informazio zehatz eta puntuala telebistatik

Orain dela 12 urteko Golkoko gerra zerbaitengatik nabarmendu bazen, telebistan egin zitzaion jarraipenagatik izan zen. Gerra hark ospea eman zion CNN telebista kateari, munduko hainbat eta hainbat telebista katerendako, ETBrendako, esate baterako, erreferentzia eta irudi hornitzaile bilakatu zen-eta. Golkoko gerraren gaineko albistegiek, gainera, ikus-entzule asko izan zituzten. 12 urte pasatu dira eta gauzak zerbait aldatu dira, Irakeko gerra hasi berria dela-eta. Esate baterako, satelliteak ahalbidetu du hainbat telebista katek zuzeneko konezioak egin ahal izatea Iraketik bertatik eta Ekialde Hurbileko beste herrialde batzuetatik. Horretan dihardute egunotan kate gehienek: momentuko informazioa, platoko analisisekin jantzi dituzte albistegi bereziak. Eguenean, goizean goiz, jarraipen puntual eta zehatza egin zioten gerrari ETBk, TVEk, T5ek, A3k, CNN+ek... Hala, iragarritako gerrarako ondo prestatuta zeudela erakutsi dute. Orain dela 12 urteko Golkoko gerraren gaineko albistegiek bezainbat ikus-entzule izango duten edo ez ikusiko dugu, eta gaur egun audientzia askodun diren *Hotel glamour*, *Gran Hermano* eta horien moduko saioak baino ikusiagoak izango diren edo ez. Ahaleginak, behintzat, egin dituzte kate guztiek, eta horretarako, baliabide guztiak gerrari begira jarri dituzte.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Martxoaren 21etik 27ra



EGUBAKOITZA 21	ZAPATUA 22	DOMEKA 23	ASTELEHENA 24	MARTITZENA 25	EGUAZTENA 26	EGUENA 27
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik kirol tertulia 14:30 Iparrorratza 15:00 Lanabesak 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Abraham Olano 17:00 Soinuz blai 17:30 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik kirol tertulia 14:30 Iparrorratza 15:00 Lanabesak 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Abraham Olano 17:00 Soinuz blai 17:30 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Iparrorratza 14:30 Berriak 15:00 Xeleberri 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iparrorratza 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iparrorratza 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iparrorratza 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iparrorratza 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Herrilan Oñati 21:00 Gaurkoak 21:15 Herrilan 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Herrilan 23:00 Gaurkoak 23:15 Herrilan 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean: Igor Elortza 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete	14:00 Harmailatik	15:00 Lanabesak	21:15 Harmailatik	20:30 Iparrorratza	21:00 Gaurkoak	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Gatzagarrok ere eskubidea daukagu kablea edukitzeko, eta Euskalteli esaten diogu: No nos toques la fibra".

Amaia Olabe / Sorginak emakume taldea "BERRIAK" (2003-03-18)



"Beti dago hasiera bat eta behin ere ez dakizu noiz den bukaera. Ez nuen bizikleta itxura txarrarekin utzi nahi".

Abraham Olano / Txirrindulari ohia "ILUNTZEAN" (2003-03-20)

TELEBEGI / Maria Agirre

Gerra eta Potxolo

Busek 48 orduko ultimatum eman duenetik, gerra inoiz baino hurrago ikusi dute telebistan, eta hilabeteak lehengo Iraken inguruan prestatuta zuten materiala eskaintzen hasi dira; erreportajeak, munduan sakabanatutako berriemaileekin hartu-emanak... Irailaren 11ko gertakarien berri emateko erabili zuten formularen errepikapena antzematen dut. Orduan gertatu zen bezala, batek daki zein irudi ikusiko ditugun! Gogoratu urteak dela eskainitako irudi bat baino gehiago erabili zutela telebistek Afganistanen aurkako erasoaren berri emateko.

Gerra zelan doan ikusi behar gerraren inguruko saioek zein audientzia izango duten jakiteko. Eta telebistak denetik eskaintzen duenez, Potxolo eta bere lagunak ere hortxe izango ditugu, gerrarekin tartekatuz. Gaur egun, hildakoek zein munduko txorakeria handienek izan baitezakete arrakasta telebistan. Biek batera, gainera.

GOITB Debagoieneko telebistako seinalea har daiteke dagoeneko Oñatiko etxe gehienetan

Adituek hainbat gomendio ematen dizkigute, GOITBko seinalea hartu gura izan eta lortzen ez dugun kasurako

LEIRE KORTABARRIA

Joan den astea ezker GOITB ibarreko telebistaren seinalea hartzeko modua dago Oñatin. GOITB sortu zenetik, helburuetariko bat izan da, hain zuzen ere, Debagoien osoko etxeetan ikusi ahal izatea. Lehen akordioa 2001eko abenduan sinatu zen, baina bide malkartsua egin du GOITBren uhinak Oñatira iritsi baino lehen.

Bai Goiena Komunikazio Kooperatibak bai eta Oñatiko Udalak lan-kidetzarako borondate ezin hobea azaldu dute GOITB Oñatin ere lehenbailehen ezartzeko, ordura arte ibarreko beste herri batzuetan gertatu zen moduan.

Iñazio Arregi Goienako zuzendari nagusia ibili da erakundeekin elkarriketetan, eta hark baieztatzen digu arazoa ez dela hortik etorri: "Oñatiko Udalak agudo hartu zuen GOITBrekiko baiezkotako erabakia eta ahalik eta lasterren Belarren antena bat instalatzea erabaki zuen. Izan ere, aurrekontua iaz onartu zuten, irailaren 12an". Urte erdi itxaron behar izan dute oñatiarrek, ordea, GOITB ikusi ahal izateko.

HUTSUNE LEGALA

Lege aldetik etorri dira oztopoak. Izan ere, legeari begiratzen badiogu, GOITBren tankerako lekuko telebistak ez daude ondo definituta; orain arte, lekuko telebistok arautzeko lege gutxi eman dira, eta eman direnak ere ez ziren oso zehatzak. Horrek indefinitiorako lekua utzi du.

GOITBren seinalea Oñatin hartzeko ezinbestekoa zen horretarako apropos antena bat ipintzea, seinalea Arrasatetik, Muru gainetik, hartu eta Oñatiraino bidaltzeko. Horretarako, ordea,

baimena behar zen. Oñatiko telebista antena orokorra Eusko Jaur-laritzarena da, eta hark eman behar zuen berria instalatzeko

baimena. Negoziaketetan ibili direnek zera azaldu digute: "Jaur-laritzak instalazioarekin aurrera egiteko esan zigun, baina

GOITB lege barruan sartzen ez denez, baimen ofizialik ezin zuela eman esan zuten. Hori dela-eta, antena instalatu behar zutenek


ezetza eman zuten". Azkenean, ordea, konponbidea aurkitu dute guztien artean, eta antena ipini ahal izan da Belarren.



MARIAN LIZARRALDE
Udaleko Euskara teknik.

Beste telebistetako protagonisten handikeriatik eta artifizialkeriatik urrun, ohiko bizimoduak ematen duena etxeetara hurreratzeko modua izan dadin desio diot ibarreko telebistari. Demostratu diezagula "bihotzeko txutumutxuen" zurrumbilo horretatik kanpo badela beste nahirik, gogorik, kultur gintza modurik eta gauzak eraiki nahirik...

Ohiko bizimoduak ematen duena hurrera diezagula!



ANTON INTZA
Aloña Mendi kirol elk.

Gustura ikusi eta grabatuko ditugu GOITBk eskainiko dituen gure partiduak. Gordetzeko politak izaten dira, eta entrenatzaileek ere erabiliko lituzkete bideo horiek. Bestalde, Aloña Mendiko taldeen ekintzak herritarroi hurreratzeko balioko du, eta gaur egun hain ezagunak ez diren kirolak jende gehiagori helarazten lagunduko du.

Gustura ikusi eta grabatuko ditugu GOITBk eskainitako gure partiduak



ARANTXA ORMAZABAL
Dendaria

Ibarreko telebista ekimen bikaina dela deritzot, eta ibarrari on egingo dio, batez ere, Oñatiri. Oñatiko merkatariondako, oso komenigarria da ibar osorako telebista bat, izan ere, Oñati, merkatarion ikuspuntutik, berezia da, hemen erostera apropos etorri beharra dagoelako. Onena izango litzateke publizitate aldetik masifikazio handirik ez izatea.

Merkatarioi mesede handia egingo digu ibar osorako telebista batek



JOSE LUIS MADINAGOITIA
Ulmako presidentea

Debagoienean kooperatiben munduak sortzen dituen albiste asko, lehen ez zirenak Oñatira iristen, aurrerantzean iritsi ahal izango dira, GOITBren bidez. Bestalde, ditugun gabezia batzuk ezin dira lekuko pentsamoldearekin konpondu, ibar kontzientzia batekin baizik. Hori falta zaigu, eta berau sortzen lagunduko du GOITBk.

Falta zaigun ibarreko kontzientzia sortzen lagunduko du



ALAZNE INTZA
Laixan euskara elkarte

Albiste pozgarria da, euskarazko ibarreko informazioa jasotzeko aukera paregabea delako. Hala ere, oraindik ez da etxe guztietan ikusten, eta hori da Laixanek bultzatu beharko duena, jendeak GOITB ikusteko ohitura har dezan. Gure aldetik, bazkideongana zuzenduko gara GOITB jartzeko jarrera hori bultzatzeko asmoz.

Jendeak GOITB ikusteko ohitura har dezan bultzatuko dugu

GOITB etxean ikusteko egin beharrekoak, puntuz puntu

GURE KABUZ SINTONIZATZEN SAIATU

1. Gure etxeko telebistak sintonizatu ditzakeen kate guztiak frekuentzia jakin batean emititzen dira. GOITBren kasuan, frekuentzia hori UHFko 28a da.

Gaur egungo telebista aparailu gehienek kateak erraz sintonizatzeko sistemak dituzte. Telebistako beste kateen uhina hartzeko jarraitu dugun prozesu berbera jarraitu beharko dugu orain, hari eta GOITBren seinalea argi ikusi ahal izan arte. Seinale hori Arrasatetik bidaltzen da Mururaino, handik Belarreraino, eta hortik, Oñatiko etxeetara zuzenean.

ANPLIFIKADORE MOTA

2. Gerta liteke, ordea, GOITBren seinalea interferentziekin ikustea, edo ez ailegatzea zure telebistara. Rafael Zelaia teknikoak esan digunez, "hamaikak txo etxetatik deitu digute, GOITB ezin zutela sintonizatu esanaz". Zelaia azaltzen duenez, hori etxean dugun anplifikadore motaren arabera gerta daiteke. "Anplifikadore batzuk banda zabalekoak dira; horiek seinale gehiago harrapatzen dituzte, baina kalitate txarragoarekin. Beste batzuk monokanal delakoak dira; kate bakoitzeko bat behar da", dio.

ADITUARI DEITU

3. Etxeko antenetan, anplifikadorea monokanal sistemakoa izanez gero, arazoak izan ditzakegu GOITB sintonizatzeko. Kasu horretan, irtenbide bakarra uhin berriarendako anplifikadore berri bat instalatzea da.

Rafael Zelaia dioskunez, "Oñatiko etxeetan, denetarik dago; etxe askok dute monokanal motako anplifikadoreak". Anplifikadoreek 90-100 bat euroko prezioa dute, kalitatearen eta fintasunaren arabera. Etxebizitza blokeetan, guztiendako bat instalatzearekin nahikoa izango da.

AUZO BATZUETAN, ERREPIKATZAILEA

4. Pauso horiek jarraituz gero, seguruena da GOITBren seinalea zure telebistan garbi ikustea, interferentziarik gabe. Izan ere, Goienak eta Udalak, antena motarendako zeuden aukeretatik, kalitate onena ziurtatzen zuena aukeratu dute: irrati-loturakoa deritzona. Hala ere, Araotzen, Arantzazun edo beste auzoren baten seinalea ez bada ondo hartzen, errepikatzaile bat ipintzea komeniko litzateke. Hala ere, Goiena Oñati osora bere seinalea ahalik eta ondoen bidaltzeko lanean ari da oraindik.

Atzeskua

MAIDER OSA

Jazinto Lizarralde/Mendizalea

Zer galdu zaizu Urbian, hara egunero igotzeko? Galdu, ezer ez.

Gaztetan, aita-amek okela zuten, baserri baserri ibiltzen ginen ganadua ikusten, eta orduan ibili beharra zegoen. Gero mendian ere ibiltzen ginen ardiekin. Pentsatzen dut hortik sortuko zitzaizkidan mendiarekiko zaletasuna. Lehen, batetik bestera ibili beharra genuen, eta orain, behar hori zaletasuna da. Kalterik ez dit egiten-eta, zer egingo diogu, bada! Ibili egin behar! Jendea ere konturatuta dago aire librea gauza ona dela bizimodurako, eta irten egiten da.

Urbiara egunero eta Aizkorrira, askotan, ezta?

Bai. Gaur ere han izan naiz txakur biak hartuta.

Inguru hura biziki atsegin duzu!

Bai. Eguerdia arteko denbora han egiten dut, eta bitartean andreari bakea ematen diot, bere lanak egin ditzan. Etxean geldituko banintz, endredoa igual...

Goizetan zein ordutan irteten zara mendirantz?

Normalean zortziak inguruan. Badut auto zahar bat, eta harekin Arantzazuraino joan eta handik gorako bideari ekiten diot. Mendira joan ezean, etxetik irten eta Arantzazuraino joaten naiz joan-etorrian.

Begiak itxita ere, behar bada, ederto asko asmatuko zenuke Urbiara-bidea!

Hori esaera bat da, baina nik uste dut hobe dela begiak ondo irekita joatea.

Bidea, lehen zegoen moduan ala oraingo moduan gurago?

Orain, ibiltzeko askoz ere hobeto dago, lehen zakartzen hasita zegoen-eta. Zaindu barik zegoen, eta basoko bideak, zaindu ezean, igarogaitz bihurtzen dira. Oso polito jarri dute bidea, eta aldameneko inguruari ez dio trabarik egiten.

Dena dela, Santiago-bidea eta antzerakoak ere

egin izan dituzu.

Ia 40 urtean joan guran egon nintzen, baina andrea eta biok okupatuta egon izan garenez, desio hori oraintxe konplitu dut. Hamaika hileren barruan lau bidaia egin ditut. Orreagatik Santiagora joan nintzen lehenengo aldiz, eta Santiagotik, tren hartuta, etxera etorri nintzen. Beste hiruretan, Santiagotik aurrera egin dut; bigarrenean, Finisterreraino jarraitu nuen; hirugarrenean, Cadizen irten, eta Sevilla eta Santiago igarota, Ferroleraino joan nintzen. Azkenekoan, Hendaiatik irten eta Santiago-bidea egin nuen, eta gero, Portugalgo mugan, txanponak aldatu eta Oportoraino heldu nintzen.

Etorrizunerako antzerako egitasmorik?

Bai, Hiru Santutegiak deitura jarri niona: Arantzazu, Lourdes eta Fatimarako ibilbidea, baina oraingoz atzeratu egin dut.

“Urbiara egunero igotzen naiz, nire bi txakurrak alboan hartuta”

“Hamaika hileren barruan lau bidaia egin ditut Santiagora, eta hirutan aurrera jarraitu”

“Badut ibilbide bat pentsatuta, Hiru Santutegiak izena jarri diodana”

► Oñatiarra / 71 urte / Ibiltaria

PIPERRAUTSA

Esportatu

Artikulu bikaina irakurri diot Iñaki Mendigureni *Argia*-n. Besteak beste aipatzen zuen euskaldunok dugun premia kanpoan adiskideak egiteko. Eta kontraesan argigarri hau botatzen zuen: “Gure enpresak onak dira industri produktua esportatzen. Baina euskal politikaz, gizarteaz, kulturaz... ez guk, baizik eta besteak esportatzen dute informazioa, merkantzia usteldua gehienetan”.

Egia borobila. Eta erronka polita, euskal enpresek esportatzen duten beste euskal gizarteak esportatzea. Gure albisteak, gure literatura edo musika, gure baloreak eta estiloa... Eta aldeko giroak sortu.

Nola? Beste mailegu bat hartuko dut, oraingoa Joxe Aranzabali. Berriki zioen *Egunkaria*-ren alde agertu dela euskal elite indartsua, goi mailako kirolari, artista, musikari edo idazlez osatua. Euskaldunak eta euskaltzaleak. Eta bakoitza berean onak, esportagarriak. Badago zer, beraz.

Eta esportatzeko bidea topatu egin behar da. Eredugarri da horretan Unai Elorriagaren kasua. *SPrako tranbia* idatzi eta txukun saldu ondoren, bere kabuz aurkeztu zuen Espainiako sarira. Ez zuen oztopo ideologikorik izan, ez zuen pentsatu hasiberri batek ezinezko zuela irabaztea. Aurkeztu egin zen, eta irabazte irten. Eta egunotan, euskaraz bigarrena kaleratu berrikan, lehena gaztelaniaz aurkeztera joan da Madrilera.

Zergatik ez izendatu Unai esportazio buru?

MIKEL IRIZAR



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatza

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51